



# EL CAMBIO CLIMÁTICO EN EUSKADI **DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO**

## KLIMA ALDAKETA EUSKADIN GENEROAREN IKUSPEGITIK



*Eunice Foote izan zen lehenengoz idatzi zuena karbono dioxidoaren mailak altuagoak izanez gero, lur planeta beroagoa izango litzatekeela. Hori 1856an gertatu zen. Hiru urte geroago, John Tyndallek aurreikusi egin zituen atmosferaren eraketako aldaketa txikiek kliman sortuko lituzketen inpaktuak, eta aurkikuntza hori egin zuen lehen zientzialari gisa aitortua izan zen.*

# AURKIBIDEA

## 1.

---

### TXOSTENAREN AURKEZPENA

[ 1.orrria ]

## 2.

---

### EMAKUME ETA GIZONAK EUSKADIKO KLIMAREN KAUSA, EFEKTU ETA EKINTZAREKIN LOTUTA

[ 3.orrria ]

#### 2.1 Emakume eta gizonak klima aldaketaren kausekin lotuta

[ 3.orrria ]

#### 2.2 Emakume eta gizonak klima aldaketaren efektuekin lotuta

[ 11.orrria ]

#### 2.3 Emakume eta gizonak klima aldaketaren aurreko kontzientzia, lidergo eta partaidetzari lotuta

[ 17.orrria ]

#### 2.4 Ondorioak

[ 24.orrria ]

## 3.

---

### BERDINTASUNAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN ARLOKO POLITIKA ETA ARAUDI TESTUINGURUAREN ANALISI LABURRA

[ 27.orrria ]

#### 3.1 Nazioarteko testuingurua

[28.orrria ]

#### 3.2 Estatuko planak eta araudia

[ 31.orrria ]

#### 3.3 Euskadiko autonomia erkidegoko eta tokiko testuingurua

[ 32.orrria ]

#### 3.4 Ondorioak

[ 34.orrria ]

## 4.

---

### ERRONKA ETA EKINTZA GILTZARRIAK GENERO IKUSPEGIA EUSKADIKO KLIMA EKINTZAN SARTZEN DELA BERMATZEKO

[ 36.orrria ]

# GRAFIKOEN AURKIBIDEA

## 1. GRAFIKOA [ 4.orria ]

Emakume eta gizonen joan-etorrien moduak

## 2. GRAFIKOA [ 6.orria ]

Ikasleen joan-etorrien moduak

## 3. GRAFIKOA [ 6.orria ]

Landunen joan-etorrien moduak

## 4. GRAFIKOA [ 6.orria ]

Etxeko zereginekin lotutako joan-etorrien moduak

## 5. GRAFIKOA [ 9.orria ]

Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak haragi kontsumoan

## 6. GRAFIKOA [ 10.orria ]

Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak hondakinak bereiztean (%)

## 7. GRAFIKOA [ 12.orria ]

Klima aldaketaren ondorio nagusien probabilitate oso handiaren edo nahiko handiaren pertzepzioa (%)

## 8. GRAFIKOA [ 16.orria ]

Beroarengatiko ospitaleratzeak maiatzaren 1etik irailaren 30era EAEn

## 9. GRAFIKOA [ 16.orria ]

Asma alergikoengatiko larrialdizko ospitaleratzeak EAEn

## 10. GRAFIKOA [ 17.orria ]

Emakume eta gizonen klima aldaketaren larritasunaren inguruan egiten duten balorazioa (1 ez oso larria izanik eta 10 oso larria)

## 11. GRAFIKOA [ 18.orria ]

Klima aldaketak emakume eta gizonei sortzen dizkien sentimenduak

## 12. GRAFIKOA [ 19.orria ]

Klima aldaketaren aurkako jokaera hauekin guztiz edo nahiko ados nago (%)

## 13. GRAFIKOA [ 20.orria ]

Norbere jarrera klima aldaketaren aurrean (%)

## 14. GRAFIKOA [ 23.orria ]

Ingurumenarekin lotutako jardueretan parte hartzea (%)

# TAULEN AURKIBIDEA

## 1. TAULA [ 22.orria ]

Ingurumenarekin lotutako graduetako ikasleak EAEn. 2018-2019 ikasturtea (%)

## 2. TAULA [ 22.orria]

Ingurumenarekin lotutako LHko ikasleak EAEn. 2018-2019 ikasturtea (%)

# AKRONIMOEN AURKIBIDEA

## Akronimoa    Esanahia

<b>IPCC</b>	Klima Aldaketaren Gobernuarteko Taldea
<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>BEG</b>	Berotegi Efektuko Gasak
<b>EMAF</b>	Familiak eta Ingurumen Inkesta
<b>LAG</b>	Lurralde Antolamendurako Gidalerroak
<b>OME</b>	Osasunaren Mundu Erakundea
<b>GJH</b>	Garapen Jasangarrirako Helburuak
<b>STEAM</b>	Science Technology Engineering Arts and Mathematics (azterlan zientifiko-teknikoak)
<b>NBE</b>	Nazio Batuen Erakundea

## 1.

## TXOSTENAREN AURKEZPENA

Klima aldaketa, zalantzarik gabe, mundu mailako erronka nagusienetakoa da. IPC-Cren (Klima Aldaketaren Gobernuarteko Taldea) azken txostenak ez du zalantza izpirik uzten, eta gogorarazi du klima aldaketak mehatxu egiten diela gizakien ongizateari eta lur planetaren osasunari. Gaur egun ekin ezin daitekeen 1,5 °C-ko berokuntzaren arriskuak handitzen ari dira eta inpaktuak geroz eta konplexuagoak dira hainbat muturreko gertakariren arteko interakzioak eta horien segidako efektuak direla-eta.

Ingurumenaren gaineko ondorioak agerikoak dira, baina gure gizarteetan ere inpaktu ekonomikoak gertatzen ari dira (migrazioak, osasunaren gaineko efektuak, nekazaritzan, turismoan eta abarretan sortzen diren eraginak besteak beste). Generoa ez dago klima aldaketaren efektuetatik bereizita, baina egia da genero ikuspegia duten analisiak ez direla kontuan hartu arlo horri buruz egin izan diren eztabaidetan.

Klima aldaketak lur planetari eragiten dio orokorrean, baina hala ere, bere inpaktua ez da berdin banatzen. Herrialde txiroenak eta arazo hori sortzean erantzukizun gutxiago dutenek kalte gehiago jasaten dituzte. Zuzeneko lotura dago klima aldaketa gehien sufritzen ari direnen eta pobrezia adierazle handien artean.

Herritar txiroenak dira inpaktua zuzenago sufritzen dutenak, eta ikusirik mundu mailan pobrezia feminizatuta dagoela, emakumeek gehiago sufritzen dute (mundu mailan hamar txiroetatik zazpi emakumeak dira). Emakumeek baliabide ekonomiko gutxiago dituzte, lehortek dauden landa eremuetan emakumeak gehiengoa dira, energia pobrezia gehiago sufritzen dute, kaltetuak izaten ari diren baliabide naturalekiko menpekotasun handiagoa dute, gizarteetan eta politikan duten presentzia txikiagoa da eta abar. Gainera, hurrengo urteetan beren inguruetako klima aldaketatik ihes egingo duten errefuxiatu klimatiko gehienak emakumeak izango dira. Horrekin lotuta aipatu behar da baita ere migrazio fluxuak orokorrean gatazka potentzialtzailerak direla, eta horien aurrean indarkeria

matxista gehitu egin ohi dela (sexu esplotazioa, derrigorrezko ezkontzak eta abar).

Hori guztia Europako herrialdeetan ere gertatzen da, izan ere, genero ezberdintasunak gure gizarteetan daude baita ere: diru-sarrerara gutxiago, lana lortzeko zailtasunak, soldata arrakala, nagusiki emakumeek gauzatzen dituzten zaintza lanak, botere espazioetan presentzia txikiagoa izatea eta abar. Errealitate horrek, krisi ekonomikoetan gertatu ohi den bezala, emakumeen eta gizonen arteko zaugarritasun egoera ezberdinak sortzen ditu (inpaktu negatibo gehiago sufritzen dituzte emakumeek) eta aukera ezberdinak izaten dituzte klima aldaketari aurre egiteko.

Azken urteetako azterlanek frogatu dute ezberdintasunak daudela aztarna ekologikoan edo emakume eta gizonek emisioetan sortzen duten inpaktuan eta klima aldaketak batzuegan eta besteengan dituen efektuetan. Gainera, egokitzapen estrategiak, jarrerak eta arazoari aurre egoteko moduak ere ezberdinak dira, eta baita ere klima aldaketa arintzeko zenbait politiken aldeko konpromisoak eta apustuak.

Baliabide natural eta ekonomikoak eskuratzeko ezberdintasunek, hezkuntza mailak, prekarioak ez diren lanpostuak eskuratzeko aukerak, gizarte eraikuntzak eta bereizitako rolerak, genero ezaugarriek edo botere dinamikek eta erabakitze espazioen okupazioak baldintzatzen dituzte argi eta garbi emakumeek eta gizonek klima aldaketa bizitzeko eta horri aurre egiteko dituzten moduak.

Genero ezberdintasunak kontuan hartu behar dira klima aldaketaren inguruko neurri eta politikak sortzen direnean. Generoa arazo horri lotuta dago baita ere, eta giltzarria da bereizitako efektuak arintzeko eta irtenbideak aurkitzeko.

Europako eta autonomia erkidegoko araudia betetzean ezinbestekoa da politika publiko guztietan generoa zeharkako gai gisala lantzea. Ingurumen politikak, beste politika guztiak bezala, generoari lotuta daude eta desberdintasunak sor ditzakete berdinta-

sun politikekin bateratzen ez badira. Genero eta klima justizia paradigma bakar gisa ulertu behar dira. Modu horretan, genero ikuspegiak bereizitako inpaktuak desagerrarazten laguntzen duen bezala edo erantzun ezberdinak ematen dituen moduan, klima aldaketaren politikak ere lagungarriak izan daitezke gizarte eta genero desberdintasunak ezabatzeko orduan.

Txosten honen helburua da kontu horiek guztiak jorratzea Euskal Autonomia Erkidegoaren (aurrerantzean, EAE) errealitatetik, eta egoerari buruzko hurbileko ikuspegia ematea albo batera utzi gabe testuinguru globala eta gaur egun hein handi batean energiaren krisiak eta pandemia ondorengo berreskuratzeak baldintzatzen duten egoera.

Txosten honek lau kapitulu ditu. Lehenengo kapituluan egoera hiru ikuspegi hauetatik aztertu da: zein ekarpen egiten zaizkien klima aldaketaren kausei, nork sufritzen dituen gehiago klima aldaketaren ondorioak eta klimaren aldeko ekintzarako erabakiak hartzerakoan nolakoak diren kontzientzia mailak, ohitura aldaketarekiko joerak eta lidergoak.

Bigarren kapituluan genero ikuspegia klima aldaketaren kausa eta efektuetan kontuan hartzearen analisia egiten da. Horrez gain, Euskadik klima aldaketarekiko duen kontzientzia, lidergo eta parte-hartze maila ere analizatu da.

Hirugarren kapituluan berdintasunaren eta klima aldaketaren arloko politika eta araudi testuingurua analizatu da. Lehenik eta behin nazioarteko testuingurua aztertu da, gero estatu mailakoa eta azkenik EAEkoa.

Laugarren kapituluan genero ikuspegia Euskadiko klima ekintzan sartzen dela bermatzeko ezinbesteko erronka eta ekintzak aurkeztu dira.

Txostenaren emaitzak hiru saiotan landu dira, klima aldaketari edo genero berdintasunari buruzko gaietan aditua den eragile talde batekin. Lehen saioa online egin zen, eta bigarren kapituluan jasotako analisieren emaitza nagusiak alderatu ziren. Aurrez aurreko bigarren saioan, azterketatik amaitu beharreko erronka nagusiak azaleratu ziren. Azkenik, online egin zen hirugarren eta azken saioan, erronkak landu eta bult-

zatu beharreko ekintzak zehaztu ziren. Zehazki, erakunde parte hartzaileak hauek dira: Emakunde, Gorbeialdeako kuadrilla, Aiarako kuadrilla, Balmasedako Udala, Legazpiko Udala Gasteizko Udala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, BC3, Tecnalia eta Red2Red.



## 2.

---

### EMAKUME ETA GIZONAK EUSKADIKO KLIMAREN KAUSA, EFEKTU ETA EKINTZAREKIN LOTUTA

#### 2.1

---

##### Emakume eta gizonak klima aldaketaren kausekin lotuta

Emakume eta gizonak klima aldaketaren kausetan eragiteko duten modua baldintzatzen dute gure gizartean existitzen jarraitzen duten gizarte arauak eta genero rolerak. Rol maskulino eta femeninoak jokaera zehatzekin, zereginak beren gain hartzearekin, jarduera ezberdinekin edo baliabideak ezberdin eskuratzearekin lotuta daude. Horregatik emakume eta gizonak jokaera eta eredu ezberdinak dituzte bizi ohitura eta jarreretan eta mundua ikusteko moduan edo lur planetarekin eta baliabide mugatuekin harremanak izateko dituzten eretan.

Botere harremanak eta dinamikak edo emakumeek bereziki garrantzitsuak diren eremuetan eta erabakitzeko espazio jakinetan duten espazio txikiak ere eragin egiten dute azarna ekologikoan edo emakume eta gizonak klima aldaketarekiko duten erantzukizunean edo ekarpenetan.


Emakume eta gizonak ezberdin eragiten dute klima aldaketaren betikotzean, eta inpaktu ekologiko hori, lehen esan dugun bezala, baldintzatzen dute batzuek zein besteek beren gain hartzen dituzten gizarte ereduak. Hala, maskulinitateari lotutako jokaera batzuk edo rol maskulinitateari lotutako behar eta jarrerak (norbere ibilgailua erabiltzea, haragia jatea, hondakinak sortzea, gizarte irtenbideak bilatu beharren irtenbide teknologikoak bilatzea eta abar) kaltegarriagoak dira klimarentzat, eta horrenbestez, gehiago kaltetzen dute klima azarna.

## 2.1.1 Mugikortasun ohiturak

EAEko berotegi efektuko gasen azken inbentarioaren datuen arabera (Ihobe, 2021)<sup>1</sup>, garraioa eta industria dira BEGen emisio gehien sortzen dituzten sektoreak. Zehazki, garraio sektoreak emisioen % 36 sortzen du, eta horietatik % 60 bidaiarien garraioak sortzen ditu. Mugikortasuna beraz, berokuntza globala analizatzean kontuan hartu beharreko alderdie-tako bat da.

Emakume eta gizonen mugikortasun ereduak aztertu dira Euskadin eta Europan. Ondorioztatu da mugikortasun eredu ezberdinak dituztela, eta emakumeen bidaiatzeko mo-dua jasangarriagoa dela, eta horrenbestez, BEG emisio gutxiago sortzen dituztela garraio eta mugikortasun arloetan.

Eustatek 2021ean egindako Familiak eta ingurumen inkestan (aurrerantzean, EMAF) baieztatu zuten emakumeek gizonek baino proportzio handiagoan erabiltzen dituztela motorrik gabeko garraiobideak edo garraio kolektiboak (oinez joatea, bizikleta eta garraio publikoa), eta gizonek gehiago erabiltzen dituztela ibilgailu pribatuak, kasu gehienetan autoak. 1. grafikoan ikus daitekeen bezala, ezberdintasunak agerikoak dira (gizonen % 48,5ek garraio pribatua erabiltzen du eta emakumeen % 31k).



*Espanian joera antzekoa da; emakumeak oinez (E: % 36,9 | G: % 23,5), bizikletan (E: % 36,9 | G: % 23,5) edo garraio publi-koan (E: % 26,6 | G: % 16,6) joa-ten dira. Eta gizonek gehiago erabiltzen dute garraio pribatua, nagusiki autoa (E: % 33,1 | G: % 5,6). %*

**1. Grafikoa. Emakume eta gizonen joan-etorrien moduak**  
Iturria: Ingurumen inkesta familiar- EMAF (Eustat, 2020)

<sup>1</sup><https://www.ihobe.eus/publicaciones/inventario-emisiones-gases-efecto-invernadero-pais-vasco019-3>

Garraibide jasangarriagoak erabiltzen dituzten emakume eta gizonen arrazoien artean ezberdintasun handirik ez egon arren, datu interesgarri batzuk atera daitezke. Adibidez, emakume gehiago daude (% 78,4) gizonak baino (% 74,7) diotenak hurbiltasuna dela arrazoi nagusia oinez edo bizikletan joateko. Emakumeek egunean joan-etorri gehiago egiten dituzte gizonak baino, nagusiki etxeko zereginak eta zaintza lanak gehienbat beraiek egiten dituztelako, eta horiek egiteko normalean joan-etorri motz asko egin behar izaten dituzte (Eustaten 2021eko datuen arabera, emakumeek zaintzen eta etxeko zereginen % 67,2 egiten dute).

Bestalde, gizonak (% 10,3) emakumeek baino (% 9) gehiago aipatzen dituzte entretenimendu arrazoiak bizikletan edo oinez joatea aukeratzeko.


**Norbere ibilgailuaren erabilera tradizioz gizonari gehiago lotuta egon da, eta gaur egun ere gizonak ibilgailu eta gidabaimen gehiago dituzte proportzioan emakumeekin alderatuta, eta familien esparruan gizonak gidatzen dute gehiago.**

Pandemiak mugikortasunean izan duen eragina aipatu beharra dago. Pandemiak nabarmenki murriztu ditu elkarrekin egoteko espazioak, jendea biltzeko lekuak edo jende asko ibiltzen den lekuetako bertaratzeak edo erabilerak. Garraio publikoaren erabilera adibide garbia izan da, izan ere, segurtasun arrazoiengatik eta Covid-19aren kutsadura eta transmisioa ekiditeko, denbora batean garraio publikoa gutxiago erabili zen.

2020ko datuak 2008koekin eta 2015ekoekin alderatuz ikusten da oinez, bizikletan eta ibilgailu pribatuetan egin ziren joan-etorriak orokorrean gehitu egin zirela, eta garraio publiko joan-etorriak gutxitu egin zirela. Azken bi horietan, gainera, jokaera aldaketa gertatu zen 2008ko eta 2015eko inkestean emaitzekin alderatuta, izan ere, emakumeen artean gehiago gertatu baitzen gizonen artean baino. Emakume zein gizonak ibilgailu pribatuaren erabilera gehitu zuten, baina badirudi emakumeek gizonak baino gehiago. Analisi xeheagoa egin beharko litzatekeen arren, horren arrazoiak izan liteke emakumeak kontzientziatuagoak egon direla pandemiarekiko eta kutsatzeen beldur gehiago izan dutela baita ere. Ez dugu ahaztu behar emakumeak izan direla pandemia garaian zaintza lan gehiago egin dituztenak (familiakoak, osasun arlokoak...) eta beraz, kutsatzeak gutxitzeko erantzukizun gehiago sentitu dute.


**Jarduerarekin lotuta joan-etorrien moduak** analizatzean identifikatu daiteke 1. grafikoan agertzen diren ezberdintasunen jatorria. EAEko Mugikortasunaren Azterketan (Eusko Jaurlaritzak, 2017) erabilitako datuen analisisan ikasleen, landunen eta etxeko zereginekin lotutako joan-etorrien moduak aztertu dira:

- **Mutil eta neska ikasleen** mugikortasun eredua oso antzekoa da. Nagusi dira oinez eta bizikletan egiten dituzten joan-etorriak, eta gero garraio kolektiboa dago eta azkenik ibilgailu pribatua. Gizon gehiago joaten dira oinez edo bizikletan eta emakume gehiagok erabiltzen dute garraio publikoa (2. grafikoak).
- **Lan egiteko etapan** gehitzen da nabarmenki ibilgailu pribatuen erabilera sexu bietan, baina hazkunde hori askoz ere handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (3. grafikoak). EMAFen datuen arabera (Eustat, 2020) norberak erabiltzeko ibilgailu bat izatearen parametroa askoz ere handiagoa da gizonen artean (% 82,1) emakumeen artean baino (% 55,5), eta ezberdintasun hori gainera, hazten doa aurreko 2008ko eta 2015eko inkestekin alderatuta.
- **Etxeko zeregin eta zaintzekin** lotutako joan-etorriak dagokienez, aipatu behar da emakumeak nagusiki oinez joaten direla (% 72), eta gizonak ibilgailu pribatuan (% 56). Garraio publikoa oso gutxi erabiltzen da horrelako joan-etorrietan, eta bakarrik emakumeek erabiltzen dute (% 7) (4. grafikoak). Hainbat azterlanetan eta EAEko lurralde antolamenduko gidalerroetan azaltzen den moduan, beharrezkoa da genero ikuspegia sartzea garraio publikoa planifikatzen denean eta horrela zaintza lanekin lotutako mugikortasuneko behar espezifikoak betetzea.




**2. Grafikoa. Ikasleen joan-etorrien moduak**

Iturria: EAEko mugikortasunaren inkesta (Eustat, 2017)



**3. Grafikoa. Landunen joan-etorrien moduak**

Iturria: EAEko mugikortasunaren inkesta (Eustat, 2017)



**4. Grafikoa. Etxeko zereginekin lotutako joan-etorrien moduak**

Iturria: EAEko mugikortasunaren inkesta (Eustat, 2017)

Datuen arabera, helduaroan aldatu egiten dira mugikortasun ereduak eta etapa horri lotutako jarduerak (ordaindutako lana, pertsonak zaintzea...) baldintzatu egiten dute baita ere erabilera mota, eta generoaren arabera ezberdintasunak daude. Gainera, genero rolag direla-eta, hiri, landa eta lurralde espazioak erabiltzeko beharrak ezberdinak dira.

Zaintzei dagokienez, emakumeek egiten dituzte gehien, eta horien ondorioz behar eta mugikortasun eredu ezberdinak sortzen dira baita ere, aurreko grafikoan ikus daitekeen bezala. Zaintza informal horiek (menpekotasuna dutenenak, umeenak eta abar) emakumeek egunerokotasunean hainbat zeregin gauzatu behar izatea sortzen dute eta horiek egiteko joan-etorri motzak egin behar izaten dituzte, arrazoi gehiagorengatik bidaiatu behar izaten dute edo bidaiak gehiago elkarrekin lotu behar izaten dituzte. Arrazoi horiengatik ibilgailu propioa gutxiago erabiltzen dute eta oinez edo garraio publikoan joan-etorri gehiago egiten dituzte. Mugikortasun eredu jasangarriagoak eta klima inpaktu gutxiagokoak dituzte.

Gainera, hirian, landa edo industria inguruan bizitzearen faktoreengatik mugikortasun ereduak aldatu egiten dira. Sexuaren arabera bereizitako daturik ez dagoen arren, ezberdintasun bat dago landa eta hiri inguruen artean. Landa inguruan autoen parkea handiagoa da hiri inguruan baino, eta lehenengoan, familien joera izaten da adin nagusidun bakoitzak auto bat izatea. Garraio publikoko zerbitzua hiri eremuan baino murriztagoa da, eta horrengatik ibilgailu pribatua gehiago erabiltzen dute orokorrean. Horrekin lotuta, eta berresteko daturik ez dagoen arren, pentsa daiteke landa eremuan emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna garraio moduan ez dela hain nabarmena hiri inguruan bezala. Mugikortasuna analizatzeko interesgarriak dira zenbait sekzio arteko faktore, besteak beste kokapen geografikoa.

Bestalde, mugikortasun ohiturak analizatzeaz haratago, beharrezkoa da lurralde antolamendua berrikustea eta hiri eredu trinkoen aldeko apustua egitea, non bizitza hurbileko erradio batean gauzatzen den, emisioak gutxituz.

Mugikortasun ohiturak neurri handi batean hiri antolamenduak baldintzatzen ditu. Ildo horretan, **genero ikuspegia Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) txertatzeko lana**<sup>2</sup>, Esperientzia aitzindarizat hartu da European, eta garrantzi handikoa da, EAEko udalez gairik eta udalerrietako antolamenduan berdintasuna esplizituki txertatzeko zehaztapenak eta orientabideak biltzen baititu. Ildo beretik, 2019an **LAGak** berrikusi eta eguneratu zirenean, **klima aldaketaren erronka ere zeharka hartu zen kontuan**. Zehazki, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bertsio eguneratuak ezartzen du beharrezkoa dela lurralde eta hiri plangintzatik abiatzea berotze globalaren ondoriozko arriskuak, eta etorkizuneko ziurgabetasunak murriztea, pertsonen osasunean eta segurtasunean izan ditzaketen ondorioak murrizteko. LAGen eguneraketekin batera, 2019an Ilobek<sup>3</sup> dokumentu bat argitaratu zuen, LAGen berrikuspenaren esparruan, Lurraldearen Antolamendurako tresnetan klima aldaketara egokitzeari buruz.

Kontuan hartu diren lurralde orientabideen artean, bat zehazki "zaintzaren mugikortasuna" sustatzeko da. Hau da, erraztea beste pertsona batzuek zaintzeko eta etxeko zereginak egiteko joan-etorriak ahalik eta denbora laburrenean, beharrezko ordutegietan eta ordain daitezkeen kostuekin egin ahal izatea, eta gainera, zeregin horiek ordaindutako lanarekin bateratu ahal izatea.

<sup>2</sup>[https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision\\_dot/es\\_def/adjuntos/Perspectiva%20de%20G%3%a9nero%20en%20las%20DOT%20\(ISdM\).pdf](https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision_dot/es_def/adjuntos/Perspectiva%20de%20G%3%a9nero%20en%20las%20DOT%20(ISdM).pdf)

<sup>3</sup><https://www.ihobe.eus/publicaciones/adaptacion-al-cambio-climatico-en-instrumentos-ordenacion-territorio-en-marco-revision-dot-resumen-ejecutivo-3>

### HIRI BIRGAIKUNTZA GENERO IKUSPEGIAREKIN OTXARKOAGA AUZOAN

Ekimen hori txosten honetan oinarritu zen: Hiri birgaikuntza genero ikuspegiarekin Euskal Autonomia Erkidegoko hiri agendaren esparruan. Bultzatu 2050. Txosten hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plan-gintza eta Hiri Agenda Zuzendaritzak idatzi zuen.

Txostenean nagusiki auzo zaurgarriak jorratzen dira eta lanerako esparru bat eskaintzen du EAEko udalerrien eraldaketa birsortzailearentzat ikuspegi integratu batetik, zeinak kontuan hartzen dituen genero ikuspegia, klima aldaketa eta hiri osasuna.

Lan horren barnean esperientzia pilotu bat egin da Otxarkoaga auzoan. Jarduketan proposamen jakin baten gainean lan egin zen, eta horiek diagnosi parte-hartzaile batean oinarrituta zeuden, eta jarduketan helburua da genero ikuspegia sartzea Bilboko auzo horretako hiri birgaitzean.

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/regeneracion\\_urbana/es\\_def/adjuntos/Regeneracion-Urbana-Perspectiva-de-Genero.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/regeneracion_urbana/es_def/adjuntos/Regeneracion-Urbana-Perspectiva-de-Genero.pdf)


## 2.1.2 Kontsumo ohiturak

Kontsumo ohitura osasuntsuak hartzen direnean norbere karbono aztarna txikitzen da, eta horrekin ekoizpenari, garraioari, eta kasuaren arabera bizi erabilgarri bukaeran kontsumitutako produktuak botatzeari lotutako emisioak murrizten dira.

**Energiaren kontsumoari** dagokionez, Herritarrek ingurumenarekiko dituzten jokaerei buruzko txosteneko datuen arabera (Eusko Jaurlaritza, 2021), etxetresna baten edo etxebizitza bat erosteko sailkapen energetikoari eta antzeko gaiei garrantzia handia edo nahikoa ematen dietenen ehunekoa handia da, kasu bietan % 87-% 88 artekoa, eta ia ez dago ezberdintasunik emakumeen eta gizonen artean.

Antzeko zerbait gertatzen da produktu mota batekoak edo bestekoak erosten dutenean **berrerabili eta/edo birziklatzeko** dituzten aukeren arabera. EMAFen datuek (Eustat, 2021) diote ezberdintasun gutxi daudela emakume eta gizonen artean. Edonola ere, gizonen proportzioa handiagoa da produktu birziklatuak edo birziklagarriak kontsumitzeari dagokionez, adibidez paper birziklatua (+% 2,5) edo itzul daitezkeen ontziak (+% 3,3), eta emakumeen proportzioa handiagoa da maiztasunez erabili eta botatzeko produktuak erabiltzeari dagokionez (+% 4,2). Gaur egun birziklatzearen inguruko inkestek kontuan hartzen dituzten analisi kategorien inguruan hausnartu beharra dago, jakiteko ea analisisian kontuan hartzen dituzten emakumeen genero rola direla-eta ohikoagoak izan daitezkeen berrerabilpen moduak: arropa eta elikagaiak birziklatzea eta abar.

Bestalde, emakume eta gizonen arteko **elikagaien kontsumo** eruedetan ere ezberdintasunak daude. Emakumeek gehiago jaten dituzte barazkiak fruta eta arraina, egunero edo astean 3 aldiz baino gehiagotan, eta gizonek haragi eta hesteki gehiago jaten dituzte (5). Sexu bietan haragi kontsumo handiena 45 eta 64 urteen artean gertatzen da, eta nagusiki, goi mailako ikasketak gauzatu dituztenen artean.



##### 5. Grafikoa. Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak haragi kontsumoan

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun inkesta (Eusko Jaurlaritzza, 2018)

*Spainian Elcano Errege Institutuak (2019) egindako azterlan batean argitaratu zuten emakumeen % 72 haragi gutxiago jaten hasi zela, eta gizonak aldiz % 60 ziren.*

Haragiaren kontsumoak barazkien kontsumoak baino berotegi efektuko gas emisio handiagoak sortzen ditu, eta beraz, dietan haragi produktuak gutxitzea onuragarria litzateke klima aldaketari dagokionez. Hala eta guztiz ere, alderdi garrantzitsuenak haragiaren jatorria eta ekoizpen modua dira, izan ere, egiaztatuta baitago abeltzaintza ekoizpen estentsiboko eta lurraldeari lotutako sistemek emisioen balantze orekatuagoa dutela, eta beste onura batzuk ere badaudela, adibidez paisaia edo biodibertsitatea mantentzea.

Edonola ere, emakumeen elikadura ereduak fruta eta barazkien kontsumo handiagoan oinarrituta daude, eta gaur egun jasangarriagoak dira. Elikadura eredu horiek beste behin ere genero rol eta aginduen arabera baldintzatuta daude: emakumeen estetika zaintza, maskulinitatea kontsumo handi eta proteikoei lotuta egotea indar lanak egiteko, emakume eta gizonen erosketa ereduak, emakumeak ingurumenarekiko kontzientziatuagoak egotea eta abar.

EMAFen datuen arabera (Eustat, 2021), emakumeek eta gizonak ia-ia garrantzi berbera ematen diote **hurbileko produktuak** erosteari. **Etiketa ekologikoa** duten produktuei dagokionez, gizon gehiago daude diotenak garrantzitsua dela horrelako produktuak erostea (+% 3,7). Ezberdintasun hori are handiagoa da inkesta bete dutenen jardueraren arabera emaitzak analizatzen badira, eta horrek esan nahi du nolabait errenta mailak baldintzatu-tako kontua dela. Ez dugu ahaztu behar gizonen errenta emakumeena baino handiagoa dela, eta emakumeak direla familien ekonomia gehiago zaintzen dutenak (erosketak egiten dituzte, dirua kudeatzen dute...), eta beraz, produktu ekologikoen erosketa baloratzerako orduan kontuan hartzen da produktu horiekiko interesa, baina baita ere familiaren erosketetan izan dezakeen inpaktu ekonomikoa.

Europako Parlamentuak ebazpena eman zuen 2018ko urtarrilaren 16an emakumeei, genero berdintasunari eta justizia klimatikoari buruz, eta<sup>4</sup> hauxe aitortu zen bertan: *emakumeek ordaindu gabeko zaintza eta etxeko zeregin gehienak egiteaz gain, eguneroko kontsumo erabaki gehienak hartzen dituzte, eta beraz, informazio eta aukera zehatzak ematen bazaizkie, jasangarritasunean eragin dezakete beraien erabakien bitartez; adibidez, ikerketek egiaztatu dute tokiko elikagaiak aukeratzen direnean kontsumitzaileek % 5era arte gutxitu ahalko lituzketela berotegi efektuko gas emisioak.*

Lan asko egin behar da emakume eta gizonen kontsumo ohiturei eta ohitura horien arabera klima aldaketan sortzen den intzidentziari buruzko informazio garrantzitsua ematen duten adierazleak identifikatzeko. Hori dela-eta, garrantzitsua da kontuan hartzea emaku-

<sup>4</sup>[https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-8-2018-0005\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-8-2018-0005_ES.html)

me eta gizonen arteko errealitate ezberdina, eta abiapuntutzat ez hartzea ikuspegi murri- ztaile eta androzentrikoa analisiak egiterako orduan. Horren adierazle da azterlan batzuen arabera aire girotuko gailuak geroz eta gehiago instalatzen direla, zeintzuek ezaugarri fi- siologiko jakin batzuentzat programatuta daudenez (adin ertaineko gizon bat) ez dituzten kontuan hartzen beste pertsona batzuen ereduak (emakumeak, adinekoak eta abar), hotz gehiago izaten dutenak gailu horien programazio androzentrikoa dela-eta.

Garrantzitsua da baita ere kontsumo ohiturei buruzko azterlanek eta inkestek genero ikus- pegia izatea, modu horretan informazioa jasotzeko tresnak sortzeko eta horien bidez kon- tuan hartzeko emakume eta gizonen errealitatea.

### 2.1.3 Hondakinen kudeaketa


Hondakinen **prebentzio eta kudeaketari** dagokionez, aipatu behar da EAEn ez dagoela sexuen arabera bereizitako informaziorik hondakinak sortzeari eta elikagaiak alferrik galt- zeari dagokienez besteak beste. Interesgarria litzateke informazio hori izatea modu era- ginkorrean lantzeko hondakinen prebentzio politikak, bereziki etxean sortzen diren hon- dakinekin lotutakoak.

Hondakinak kudeatzeari eta jatorrian banatzeari dagokionez, egindako analisia EMAFen (Eustat, 2020) emaitzetan oinarritu zen, zeinak badituen sexuen arabera bereizitako da- tuak hainbat hondakin frakzio banatuta botatzeari dagokionez (6. grafikoa). Frakzioen araberako analisiak ondorioztatu du emakumeek gizonek baino gehiago birziklatzen di- tuzten hondakin bakarrak medikamentuak direla (+% 0,9), eta kontu hori zuzenean lotuta dago zaintza lanekin eta etxeko zereginekin. Hala ere, emakumeen eta gizonen arteko diferentzia ez da hain handia esateko joera argi bat dagoela.

Bestalde, ezberdintasun handienak tradizionalki gizonekin lotuta dauden zereginetan sortzen diren hondakinekin gertatzen dira, besteak beste obra hondakinetan 6,9 puntuko diferentzia dago, gailu elektrikoetan 6,4 puntukoa eta produktu kimikoetan eta garbiketa produktuetan 6,4 puntukoa.

*Estatu mailan joera ezberdina da, eta emakumeak dira hondakinak gizo- nek baino gehiago bereizten dituzte- nak (Gizarte barometroa, Ipsos 2019).*

#### ETXEKO HONDAKINAK BEREIZTEA



**6. Grafikoa. Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak hondakinak bereiztean (%)**  
Iturria: Ingurumen inkesta familiei- EMAF (Eustat, 2020)

## 2.2

### Emakume eta gizonak klima aldaketaren efektuekin lotuta

Klima aldaketaren efektuak ekidin ezinezkoak dira, nazioarteko protokoloetan proposatutako berotegi efektuko gas emisioak gutxitzeko helburuak lortuta ere ez dira saihestuko.

Klima aldaketaren aurreikuspenen arabera, EAEn<sup>5</sup> tenperaturak 1,5 °C eta 5 °C artean igoko dira mende bukaerarako. Gainera, aurreikusi da gau tropikal gehiago eta 25 °C baino gehiagoko egun gehiago egongo direla eta bero boladek gehiago iraungo dutela. Prezipitazioaldi gutxiago, baina prezipitazio handiagoekin espero dira baita ere, eta horien ondoren lehortealdi luzeak gertatuko dira.

Tenperatura eta prezipitazio patroien aldaketaren efektuak nabaritzen ari dira jada. Herriarren osasunean eragiten dute, biodibertsitatea galtzen ari da, uholdeak geroz eta maizago gertatzen dira eta laboreen zikloak aldatu egin dira, beste batzuen artean.

Efektu horiek eragin ezberdinak dituzte herritar eta kolektiboengan, eta generoa inpaktuarekin eta ondorioekin zerikusia duen guztia zeharkatzen duen kontu bat da. Egiturazko ezberdintasunek eragin egiten dute emakumeen zaugarritasun handiagoan, baita ere bazterketa egoera handiagoko bizi baldintzei aurre egiten dieten eta baliabide berberak ez dituzten kolektiboen zaugarritasunean.

Pobrezia, adibidez larriagoa da emakumeen kasuan, eta baliabide ekonomiko gutxiago eta prekaritate handiagoa dute. Gauzak horrela, emakumeen aldaketekiko egokitzapen gaitasuna txikiagoa izango da: ziurrenik ingurumen aldaketengatik (uholdeak...) kalte gehiago jasango dituzten etxebizitzetan biziko dira, gizonak baino pobrezia energetikoko egoera gehiagori aurre egingo diete eta abar.

Gizarte arauak, genero aginteez eta botere egitura edo dinamika ezberdinek ere ondorio desberdinak dituzte batzuen eta besteen artean: muturreko klima fenomenoek baja gehiago sortzen dituzte emakumeengan, zaintzaileen rola areagotu egin daiteke hondamendi naturalak gertatzean edo klima aldaketak osasunean izan ditzakeen efektuak direla-eta baliteke arlo publiko eta pribatuan zeregin eta erantzukizunen segregazio handiagoa gertatzea eta abar.

Ondorio zuzen eta zeharkako horiek guztiak kontuan hartu behar dira analizatzen denean klima aldaketak nola eragingo duen gizarte bateko herritarrengan. Gainera, beharrezkoa da ikuspegi intersektionala ezartzea, izan ere, emakumeak ez dira kolektibo homogeen bat eta badaude beste ezberdintasun batzuk (jatorria, adina...) genero desberdintasunean eragiten dutenak eta horrekin lotzen direnak.

Klima aldaketa ez da neutrala, eta klima aldaketaren inpaktuak arintzeko erabakiek ezberdintasunak sor ditzakete, zuzen bideratzen ez badira. Genero zeihartasuna hainbat egoeretan gertatzen da: genero ikuspegi gabeko erabakiak, emakumeengan eragin negatiboak izan ditzaketen emisioak arintzeko proposatutako teknologiak, emakumeak sektore jakin batzuetan laneratzea kontuan hartzen ez duten lanpostuak sustatzea eta abar.

**Ezinbestekoa da klima aldaketak emakume eta gizonengan sortzen dituen inpaktu ezberdinak ulertzea, horrela klimaren aldeko ekintza modu eraginkorrean bideratzeko batzuen eta besteen artean dauden kultura, gizarte eta ekonomia ezberdintasunak kontuan hartuta eta ikusaraziz.**


<sup>5</sup><http://escenariosklima.ihobe.eus/home>

## 2.2.1 Ondorioen pertzepzioa

**Klima aldaketaren ondorioek** emakume eta gizonengan dituzten ezberdintasunak ondorio horien hautematearekin hasten dira. Urtero Europako Inbertsio Bankuak klima aldaketaren inguruan egiten duen inkestaren azken datuen arabera<sup>6</sup>, EB-27n emakumeen % 78k uste du klima aldaketak egunerokotasunean eragiten duela, eta gizonen % 75ek du iritziz berbera. Estatu mailan zifrak altuagoak dira, emakumeen % 83 eta gizonen % 79 hurrenez hurren.

EAEko Energia trantsizioari eta klima aldaketari buruzko herritarren pertzepzioaren azterlanak (Eusko Jaurlaritza, 2021),<sup>7</sup> ezberdintasunak identifikatu zituen baita ere emakume eta gizonen klima aldaketa eta bere ondorioak antzematen dituzten moduan. Orokorrean, baieztatu daiteke herritar gehienek uste dutela oso gertagarria edo nahikoa gertagarria dela klima aldaketaren ondorioz zenbait efektu sortzea, besteak beste bero boladak sarriagotan gertatzea, itsas mailaren igoera edo gaixotasun infekziosoak gehitzea, EAEn aurreikusitako beste inpaktu batzuen artean.

7. grafikoa ikus daitekeen bezala, kasu guztietan emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino uste dutenak inpaktu horiek gertatzeko probabilitatea oso handia edo nahiko handia dela. Ezberdintasun handienak dituzten inpaktuak dira gaixotasun infekziosoen gehikuntza, lurjausi gehiago gertatzea eta elikagaiak eta ur faltatzea. Lehen bietan 9 puntuko diferentzia dago eta azkenean 8 puntukoa.



**7. Grafikoa. Klima aldaketaren ondorio nagusien probabilitate oso handiaren edo nahiko handiaren pertzepzioa (%)** Iturria: Klima aldaketa eta energia trantsizioa. Herritarren pertzepzioen azterketa (Ihobe, 2021)

<sup>6</sup><https://www.eib.org/en/surveys/climate-survey/3rd-climate-survey/index.htm>

<sup>7</sup><https://www.ihobe.eus/publicaciones/cambio-climatico-y-transicion-energetica-en-euskadi-3>

## 2.2.2 Pobrezia energetikoa

**Pobrezia energetikoa** ikuspegi bikoitza du klima aldaketari dagokionez, hau da, **klima aldaketaren efektutzat** har daiteke, baina aldi berean, **kausa** ere bada. Pobrezia energetikoa da etxe baten egoera, non energia hornidurako oinarritzko beharrak bete ezin diren diru-sarrerara maila nahikoa ez delako, eta ziurrenik egoera hori larriagotu egiten da energetikoki efizientea ez den etxebizitza izateagatik. Horrenbestez, alde batetik klima aldaketaren efektuak areagotu egiten du pobrezia egoera, energiaren kontsumoa garestitzen duelako. Baina beste alde batetik, kausa gisa hartzen hasi dira baita ere, izan ere, energetikoki efizienteak ez diren eta kaudimen ekonomiko txikiagoa duten etxebizitzak direnez, energia kontsumo handiagoa behar baitute, eta normalean energia iturri “merkeagoak” eta kutsatzaileagoak erabiltzen baitituzte.

Horregatik neurri integralak behar dira, sistema efizienteak eta energia garbiak hornitzen laguntzen dutenak, eta aldi berean egoera horrek herritarren osasunean sortzen dituen efektuak arintzen dituztenak.

**Pobrezia energetikoari aurre egiteko genero ikuspegia behar da eta irtenbide integralak ezarri behar dira, gizarte arazoa jorratzeaz gain, aldi berean emakumeei errazten dietenak irtenbide energetiko moderno, fidagarri eta eskuragarriak erabili ahal izatea, Agenda 2030eko 7. GJHarekin bat etorritz.**

Pobrezia energetikoa aurkako 2021-2024 urteetako estrategia nazionalan identifikatu diren biztanleria talde zaurgarrien artean daude emakumeak, besteak beste pobrezia feminizazioa dela-eta, lan prekarietate eta soldata arrakala egoera gehiago sufritzen dituztelako, eta baita ere zenbait etxebizitzetan emakumeak direlako diru-sarrerak sortzen dituzten bakarrak.

EAE estatu osoan intzidentziarik txikiena duen autonomia erkidegoa izan arren, ez da albo batera utzi behar ziurrenik egoerak okerrera egingo duela energia eta klima krisia dela-eta.

Pobrezia energetikoa aurkako estrategia nazionalaren eguneratutako adierazle araberak<sup>8</sup>, 2020an EAEko etxeen % 8,5en energia gastuak diru-sarreraren ehuneko handi bat hartzen zuen, % 6,5ek ezin zion gastu horri aurre egin eta % 5,2k fakturak beranduago ordaindu behar izan zituen. Gainera, etxeen % 7,6k zailtasunak zituen tenperatura egokia mantentzeko eta nazio mailan erregistratutako zenbatekoa % 9,1lekoa da. Egoera horiek larriagotu egiten dira ama bakarreko etxebizitzak edo emakume batek gidatutako etxebizitzak direnean.

Baiezta daiteke Euskadin ere pobrezia energetikoa ezberdin eragiten diela emakume eta gizonei, nagusiki errentaren banaketan egiturazko desberdintasunak daudelako. Pobrezia energetikoa emakumeei gizonei baino gehiago eragiten die, eta emakumeek energia berriztagarrietan edo energia efizientzian inbertitzeko aukera gutxiago dituzte.

Beharrezkoa da genero ikuspegiarekin pobrezia energetikoa alderdi zehatzak neurtzen dituzten adierazleak izatea, horrela bere bilakaera eta neurrien eraginkortasuna analizatu ahal izateko informazio objektiboa eskuratzeko. Beharrezkoa da baita ere energiaren garestitzea konpontzeko neurriak zuzen bideratuta egotea eta baliagarriak izatea etxe zaurgarrienen pobrezia egoerak arintzeko.

<sup>8</sup>[https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/planes-estrategias/estrategia-pobreza-energetica/estrategianacion-contralapobrezaenergetica\\_tcm30-502982.pdf](https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/planes-estrategias/estrategia-pobreza-energetica/estrategianacion-contralapobrezaenergetica_tcm30-502982.pdf)

<sup>9</sup>[https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/planes-estrategias/estrategia-pobreza-energetica/actualizacionindicadorespobrezaenergetica2021\\_tcm30-534743.pdf](https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/planes-estrategias/estrategia-pobreza-energetica/actualizacionindicadorespobrezaenergetica2021_tcm30-534743.pdf)

Pobrezia energetikoa arintzen lagun dezaketen tresna eta ekimenen artean daude **tokiko energia komunitateak**. Elementu giltzarria dira energia trantsiziorako, izan ere, beren nolokotasun propioarengatik justizia klimatikoa eta herritar zaurgarrienen babesa sustatzen baitute. Komunitateok arautzen dituen 23/2020 Errege Lege Dekretuaren definizioaren arabera, beraien xedea hau da.<sup>10</sup> “ingurumen, ekonomia edo gizarte onurak ematea bazkideei edo kideei edo komunitateok funtzionatzen duten tokiko zonei, finantza irabaziak eman beharrez.”

EAEko 2021-2024 urteetako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planean<sup>11</sup> aurreikusita dago gutxienez urtean autokontsumoko 400 instalazio ezartzea, eta 2023 urterako aurreikusita dago 12.000 eta 20.000 herritar izango direla Euskadin komunitate energetiko bateko kideak.

Energiaren toki komunitateak sustatze aldera ezinbestekoa da emakumeen papera kontuan hartzea, izan ere, egiaztatuta baitago energiaren arloko partaidetza eta erabaki hartzeak ez direla berdintasunean egiten.

Malmöko Institute for Urban Research<sup>12</sup> erakundeak ikerketa bat egin zuen Suediako energiaren 11 toki komunitatetako emakumeen partaidetzari buruz, eta ondorioztatu zuten nahiz eta energiaren toki komunitateek energia sistema tradizionalekin alderatuta gaitasun handia izan inklusio ekitatiboagoa eta bidezkoagoa sustatzeko, egiaz kide gehienak gizonak zirela. Gainera, zuzendaritza batzar eta taldeetako kide gehienak gizonak ziren baita ere. Gauza berbera gertatzen zen energia talde espezifiko bat zuten komunitateetan, hau da, bakarrik gizonak zeudela talde horietan.

Hala ere, hurbileko lurraldean kokatuta dauden toki partaidetzako eta ekimen deszentralizatuko espazio horiek dira emakumeei gehien interesatzen zaizkienak, komunitate erai-kuntzatik eta autokudeaketatik urrunduta dauden proposamen teknologiko eta azpiegitura handiagoen ordez.

Beraz, interesgarria litzateke kontu hori aintzat hartzea toki erakundeek eta autonomia erkidegoek baita ere sustatzen dituzten trantsizio energetikoko eta klima aldaketara egokitze politiketan. Berotegi efektuko gas emisioak gutxitzeko eta energia eredu berri baterako trantsiziorako konpromisoek kontuan hartu beharko lukete genero ikuspegia eta proiektu txikiagoen eskariak bete beharko lituzkete, hasiera batean energia berriztagarrien azpiegitura handiekin alderatuta hain maskulinizatuak ez daudenak.

<sup>10</sup><https://boe.es/buscar/pdf/2020/BOE-A-2020-6621-consolidado.pdf>

<sup>11</sup><https://www.ihobe.eus/publicaciones/plan-transicion-energetica-y-cambio-climatico-2021-2024>

<sup>12</sup><https://energysustainsoc.biomedcentral.com/articles/10.1186/s13705-021-00312-6>

### 2.2.3 Osasuna

Klima aldaketak osasunean sortzen dituen efektuak anitzak dira eta ez dute bakarrik osasun fisikoan eragiten. IPCCren II. taldeak egindako txostenean lehen aldiz hitz egiten da **klima aldaketak osasun fisiko zein mentalean sortzen dituen efektuen inguruan**, eta lotu egiten dira hondamendi naturalak eta lehorte luzeak traumen ondoko estres nahasmenduarekin, antsietatearekin eta depresioarekin.

Txostenean aipatzen da baita ere hirietan geroz eta larriagoa den muturreko beroak nabarmenki gehitzen duela beroagatik hiltzeko arriskua, bereziki auzo txiroenetan.

Ildo berari jarraituz, OMEk ohartarazi du baita ere estuki lotuta daudela muturreko tenperaturak eta gaixotasun kardiobaskularrek eta arnas gaixotasunek sortutako heriotzak, bereziki adinekoren artean. Adibidez, 2003ko udan Europan gertatutako bero boladan kalkulatu da hilkortasuna gehiegizkoa izan zela, izan ere, 70.000 pertsona hil baitziren.

Genero Berdintasunerako Europako Institutuak Gender in environment and Climate Change izeneko txostenean jaso zituen datuen arabera<sup>13</sup>, 2006ko bero boladan Frantzia hil ziren emakume nagusiak gizonak baino % 1 inguru gehiago izan ziren, nagusiki gaixotasun kardiobaskularrak, arnas gaixotasunak eta zuzenean beroarekin lotutako heriotzak zirela-eta. 2020ko Generoa eta Klima Aldaketa txostenean<sup>14</sup> estatuko datuak aurkeztu ziren, eta bertan ere adierazi zen emakumeak zaurgarriagoak direla tenperatura altuekiko eta gizonak hotzarekiko.

Ezberdintasun fisiologikoak aztertu gabe, emakumeek nagusiki etxeko zereginak egiteak eta menpekotasuna duten pertsonak zaintzeak etxean gizonak baino denbora gehiago egoitea eragiten dute. Testuinguru horretan, pobrezia egoeran dauden eta kalitate txarreko isolamendu sistemak dituzten etxeetan bizi diren emakumeak zaurgarriagoak dira, beraz, tenperatura altuen efektuekiko.

Eustaten 2020ko Pobrezia eta gizarte ezberdintasunen inkestaren datuen arabera, EAEko 127.803 emakumeen % 11,4 pobrezia arriskuan dago, eta zifra hori gehitzen doa eta 2013an hasi zen beherako joera hausten du.

Aipatu behar da gaur egun ez dagoela adierazlerik klima aldaketak euskaldunen osasun fisiko eta mentalean sortzen duen inpaktu zuzena neurtzeko. **Euskadin zuzenean hondamendiei lotutako hildakoen** (Eustat, 2010-2020) kopuruaren bilakaerak ez du ahalbidetzen emakume eta gizonen arteko ezberdintasun nabarmenik ikusi ahal izatea, ziurrenik munduko beste leku batzuetan gertatzen ez den bezala, datu hori baxua baita gure lurraldean.


Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioko (aurreko Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa) Osasun eta Klima Aldaketako Behatokiak adierazle multzo bat du klima aldaketaren zenbait efekturi (muturreko klima gertaerak, transmisio bektorialeko gaixotasunak, uraren eta airearen kalitatea) lotutako ospitaleratzeak eta hilkortasuna neurtzeko autonomia erkidegoen eta generoaren arabera.

Datuen seriea 2015ean bukatzen den arren, interesgarria da batzuen bilakaera ikustea, adibidez **beroaren efektuengatik ospitaleratzeak maiatzaren 1etik irailaren 30era** adierazlea (8. grafikoa) edo **asma alergikoarengatik gertatutako larrialdizko ospitaleratzeak** adierazlea (9. grafikoa).

Lehenengo kasuan argi dago 2003ko bero boladarekin lotutako ospitaleratzeen zifra gorena, eta urte puntaletan kenduta, gizonen ospitaleratzeak gehiago gertatzen dira emakumeenak baino.

<sup>13</sup><https://eige.europa.eu/publications/gender-environment-and-climate-change>


<sup>14</sup>[https://www.inmujeres.gob.es/disenio/novedades/Informe\\_GeneroCambioClimatico2020.pdf](https://www.inmujeres.gob.es/disenio/novedades/Informe_GeneroCambioClimatico2020.pdf)



### 8. Grafikoa. Beroarengatiko ospitaleratzeak maiatzaren 1etik irailaren 30era EAEn

Iturria: Osasun eta Klima Aldaketa Adierazleak (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 2016)

**Asma alergikoari** dagokionez, analizatutako datu multzoak emakumeen artean larrialdizko ospitaleratze gehiago erakusten ditu gizonekin alderatuta, eta diferentzia hori gainera, hazten doa. 1997-2015 serieko metatutako balioak emakumeen ospitaleratzeak % 63n zenbatu zituen eta gizonenak % 37n.



### 9. Grafikoa. Asma alergikoengatiko larrialdizko ospitaleratzeak EAEn

Iturria: Osasun eta Klima Aldaketa Adierazleak (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 2016)

Bestalde, txosten batzuen arabera emakume haurdunek arrisku gehiago dute airearen kutsadurarekin edo kalitate txarrarekin lotutako gaixotasunak izateko eta sentikorragoak dira muturreko bero edo hotz egoerekiko. Beraz, beharrezkoa da klima aldaketaren ondorioz ziurrenik larriagotuko diren kontu horien bilakaera eta intzidentziari arreta jartzea.

## 2.3

### Emakume eta gizonak klima aldaketaren aurreko kontzientzia, lidergo eta partaidetzari lotuta


Parisko Hitzarmenaren 12. artikulua jasotzen duenaren arabera<sup>15</sup> hezkuntza, prestakuntza, sentsibilizazioa, partaidetza eta informazioa eskuratu ahal izatea hobetzea ezinbesteko elementuak dira klimaren aldeko ekintza hobetzeko, izan ere, bizi estilo, jarrera eta jokarretan aldaketak sustatzen baitituzte.

Halaber, emakumeek erabaki gehiago hartzean eta prozesu parte-hartzaileetan gehiago egotean bizi kalitate hobea sortuko duen garapen bat erraztuko da, ez bakarrik emakumeentzat, baizik eta gizarte osoarentzat.

Azterlan batzuek emakume eta gizonen artean dauden ezberdintasunak agerian utzi dituzte klima aldaketara egokitzeko duten gaitasunari eta jarrerari dagokienez. Badirudi emakumeen zenbait jokoera, adibidez mugikortasun jasangarria, egokiagoak direla. Gainera, emakumeak kezkatuago daude eta prestutasun handiagoa dute ohiturak aldatzeko eta badirudi konpromiso eta eskuragarritasun handiagoa dutela bizi estilo jasangarriagoak izateko. Horrez gain, badirudi emakumeek ezberdin jokatuko luketela gizonekin alderatuta klima aldaketari lotutako erabakiak hartzerakoan.

#### 2.3.1 Klima aldaketaren pertzepzioa

Klima aldaketaren eta bere efektuen larritasunaren gaineko kezka emakume eta gizonek partekatzen dute, baina hala ere, emakumeek arazoa larriagozat jotzen dute (10. grafikoa) eta efektuekiko kezkatuago daude (11. grafikoa).




#### 10. Grafikoa. Emakume eta gizonek klima aldaketaren larritasunaren inguruan egiten duten balorazioa (1 ez oso larria izanik eta 10 oso larria)

Iturria: Klima aldaketa eta energia trantsizioa. Herritarren pertzepzioen azterketa (Ihobe, 2021)

<sup>15</sup>[https://unfccc.int/sites/default/files/spanish\\_paris\\_agreement.pdf](https://unfccc.int/sites/default/files/spanish_paris_agreement.pdf)

Modu berean, klima aldaketaren aurreko inpotentzia, haserre edo beldur sentimenduak ohikoagoak dira emakumeengan, baina gizon gehiagok diote inpotentzia sentitzen dutela eta emakume gehiagok baieztatzen dute klima aldaketak eta bere efektuek beldurra sorrarazten dietela.



#### 11. Grafikoa. Klima aldaketak emakume eta gizonen sortzen dizkien sentimenduak

Iturria: Klima aldaketa eta energia trantsizioa. Herritarren pertzepzioen azterketa (Ihobe, 2021)

Gazteen Euskal Behatokiak<sup>16</sup> inkesta bat egin zuen 2021eko abenduan, eta bertan, Euskadiko gazteen lagin adierazgarri batek esan zuen 15 eta 29 urte arteko EAEko gazteen % 69,5ek baieztatzen duela oso edo nahikoa interesatua dagoela klima aldaketarekin lotutako kontuetan. Baieztapen hori egin zutenen % 71,3 emakumeak ziren eta % 67,8 gizonak.

Azken urtetan garrantzitsuenetakoak izan direnak gazte nerabeak izan dira, esateko dutena entzunaraztea lortu dute eta hainbat herrialdetako gazteei beren mezua helarazi diete. Bereziki neskak izan dira azken urtetan aldarrikatzaileenak, eta unibertsitate mobilizazioetan parte hartu dute eta horiek antolatu dituzte, zeintzuk aldi berean gauzatzen ziren hainbat Europako herrialdetan. Gainera, **ekofeminismoak** ingurumen eta gizarte justiziaren eta emakumeen aldeko aldarrikapenak batu ditu eta lurraldeen esplotazioaren aurka agertu da, bai biodibertsitatearen ikuspegitik, baita ere irudizko moduan ere, emakumeen gorputzen jabetzea aipatuz.

<sup>16</sup><https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2022/observatorio-vasco-juventud-siete-cada-diez-jovenes-euskadi-se-interesan-cambio-climatico/>


### 2.3.2 Klima aldaketaren aurkako jokaerak eta ekintzak

Klima aldaketari aurre egiteko gizarte gisa hartu behar diren jarrera orokorrei dagokie-  
nez, adostasun bateratua dago zenbait erosotasuni uko egitearen inguruan, eta herritar  
bakoitzak bere energia kontsumoa gutxitu behar duela baieztatzen da baita ere. Aurreko  
kontu biekin guztiz edo nahiko ados dauden emakumeen ehuneko handiagoa da gizo-  
nena baino (hurrenez hurren +% 5 eta +% 4).

Hala eta guztiz ere, gizon gehiagok uste dute (+% 6) zientzia aurrerakuntzak bakar-bakarrik  
nahikoak izango direla klima aldaketari aurre egiteko, eta ez dagoela beharrik bizimodua  
aldatzeko.


Europako Inbertsio Bankuak klima aldaketaren inguruan egindako inkestak antzeko da-  
tuak ematen ditu. EB-27n gizonen % 50ek eta emakumeen % 39k nahiago du aurrerapen  
teknologikoa gertatzea ohiturak aldatu beharrean klima aldaketa nabarmenki arintzeko.  
Espainian diferentzia pixka bat txikiagoa da, baina kasu honetan ere iritzi horren aldeko  
gizonak gehiago dira emakumeak baino, hurrenez hurren % 48 eta % 41.

Zientzia eta teknologian konfiantza izatea generoari eta sozializazioari lotutako kontua da.  
Umeak direnetik mutilek zientziaren garapenarekin lotura gehiago izaten dute, eta ho-  
rrek zientziarekiko konfiantza sortzen du. Neskak hezkuntza aldaketetan eta gizarte tre-  
betasunetan sozializatzen dira gehiago, eta horregatik interes gehiago izaten dute gizarte  
konpromisoekiko eta hezkuntza irtenbideekiko.



**12. Grafikoa. Klima aldaketaren aurkako jokaera hauekin guztiz edo nahiko ados nago (%)**  
Iturria: Klima aldaketa eta energia trantsizioa. Herritarren pertzepzioen azterketa (Ihobe, 2021)

Maila pertsonalean azpimarratu behar da orokorrean emakume zein gizonak konprometituta daudela hondakinen prebentzioarekin eta horiek bereiztearekin, elikagaiak alferrik galtzea gutxitzearekin edo hurbileko eta sasoiko produktuak erostearekin. Ezberdintasunak oso handiak ez diren arren, nabarmentzekoa da deskribatutako jarrera guztietan emakumeen konpromisoa gizonena baino handiagoa dela (hurrenez hurren +% 3, +% 2 eta +% 6). Gainera, **erantzunkidetasunari** dagokionez, estatuko datuak analizatzean (Elcano Errege Institutua, 2019), ezberdintasun handia dago herritarrei klima aldaketaren kausen-gatik galdetzen zaienean, non emakumeen % 61ek dioen klima aldaketan eragiten duela, eta aldiz gizonen % 47k uste duen aurrekoa.



### 13. Grafikoa. Norbere jarrera klima aldaketaren aurrean (%)

Iturria: Klima aldaketa eta energia trantsizioa. Herritarren pertzepzioen azterketa (Ihobe, 2021)

Gazteen Euskal Behatokiak egindako inkestan 15 eta 29 urte arteko gazteei ingurumen inpaktua murrizteko zenbait neurri eta jarduera egitearen inguruan galdetu zitzaie, eta aipatu beharra dago adin tarte horretan ere emakumeek prestutasun handiagoa dutela gizonek baino proposatutako neurri guztiak ezartzeko. Horien artean aipatzekoak dira Km0 produktuak erostea nahiz eta garestiagoak izan (+% 5,1), oporretara autobusean edo trenean joatea hegazkinean joan beharrean (+% 4,4) eta birziklatutako telefonoak, tabletak edo ordenagailuak erostea (+% 6,7). Euskadin edo Espainian egindako arropa erosteko prestutasuna, nahiz eta prezioa bikoitza izan, txikia da sexu bietan, baina emakume gehiago daude prest daudenak (+% 2,5).

### 2.3.3 Erabakiak hartzen parte hartzea

Erabakiak hartzean berdintasunezko partaidetza ezinbestekoa da klima aldaketari aurre egiteko eta koherentea da Agenda 2030eko 5. GJHaren 5.5 helburuarekin, hau da, ziurtatzea emakumeen partaidetza oso eta efektiboa eta politika, ekonomia eta bizi publikoko erabaki maila guztietan lidergo aukera berdintasuna..

**Emakumeek ezagutza eta trebetasun espezifikoak dituzte klimaren aldeko ekintzan modu eraginkorrean jarduteko, baina ez daude behar beste ordezkaturata erabakiak hartzeko prozesuetan.**

Gaur egungo errealitatea da emakumeen ordezkartza txikiegia dela klima aldaketaren inguruko erabakiak hartzen dituzten organoetan, bai administrazioan, bai eta gobernuko askotariko mailetan ere. Beraz, gutxiengoek erabakitzen dute mundu mailako klima eta energia ekintzaren norabidea zein izango den. Erabakitzeko eta negoziazio handiak egiteko lanpostuetan ordezkartza ekitatiboa egotea beharrezkoa da genero berdintasunerako. Horrek erraztu egingo du emakumeen behar espezifikoak kontuan hartzea eta ikuspegi ezberdinak egon ahal izatea klima aldaketaren arazoari aurre egiterako orduan.

Emakundek 2021ean<sup>17</sup> argitaratu zuen Ingurumenaren ebaluazio inpaktua generoaren arabera izeneko txostenean analizatu zuten emakume eta gizonen partaidetza zein mailakoa zen Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan ingurumenarekin lotura handiena duten sailburutza eta sailtako kargu politikoetan, eta bertan jasotako datuen arabera, kargu horietan 10 gizon eta 6 emakume daude. Sailtako zuzendaritzetan diferentzia are handiagoa da. 25 zuzendaritza aztertu ziren eta horietatik 16 gizonak okupatzen dituzte eta 8 emakumeek.

Gauza berbera gertatzen da udaletan. Egungo legegintzaldian, eta 2019ko udal hauteskundeen ondoren, euskal udalerrietako alkateen % 30 emakumeak dira eta % 70 gizonak, eta aurreko legegintzaldiarekin alderatuta, diferentzia 5 puntu gutxiagokoa da.

Nazioartean ere erabakitzeko espazioak gizonak okupatzen dituzte. Madrilen 2019an egin zuten COP25 klimaren goi-bileran bakarrik ordezkartza nazionalerako % 21 zuzentzen zituzten emakumeek. Emakumeak ez dira kontuan hartzen ezta ere aditu gisa. 2020an 15 adituk parte hartu zuten Kongresuko Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Batzordean. Bakarrik bi emakumek eman zuten beraien iritzia Klima aldaketa eta energia trantsizioaren legerari buruz. Agerikoa da ekitate falta dagoela lur planeta osoari eragiten dioten erabaki hain garrantzitsuak hartzerako orduan, eta populazioaren erdiak behar duena baino ordezkartza gutxiago duenez, posible da kontuan ez hartzea zenbait errealitate, eta ez dira aprobetxatzen ikuspegi berriak eman ditzaketan lidergoak.

Genero arrakala hori eskola garaitik gertatzen da. Egia da klima aldaketak diziplina arteko ikuspegia behar duela eta geroz eta garrantzia handiagoa ematen zaiela gizarte zientzietan, baina oraindik ere sektore honetan lan egiten dutenen artean nagusi dira prestakuntza teknikoak. Horrekin lotuta, emakume gutxiago daude ikasketa zientifiko-teknikoetan (STEAM). Emakunderen inpaktuaren ebaluazioak Unibertsitate estatistikan eta eskola jardueran oinarrituta emandako datuen arabera, 2018/2019 ikasturtean ingurumenarekin lotutako ikasketak egiten ari zirenen % 36 emakumeak ziren eta % 64 gizonak (1. taula). Lanbide prestakuntzan arrakala are handiagoa da, bai erdi mailako graduatan bai eta goi mailakoetan ere; emakumeak % 16 dira eta gizonak % 84 (2. taula).

<sup>17</sup>[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2/es\\_def/adjuntos/ms\\_medioambiente.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/ms_medioambiente.pdf)

	E	G
Biologia	61,9	38,1
Ingurumen-zientziak	48,9	51,1
Ingurumen-ingeniaritza	47,7	52,3
Geologia	40,8	59,2
Energia berriztagarrien ingeniari-tza	32,2	67,8
Meatzeen eta energiaren teknologiko ingeniari-tza	28,0	72,0
Energiaren ingeniari-tza	16,3	83,7
Itsas ingeniari-tza	9,9	90,1

### 1. Taula. Ingurumenarekin lotutako graduetako ikasleak EAEn. 2018-2019 ikasturtea (%)

Iturria: Emakunderen inpaktuaren ebaluazioa Unibertsitate estatistikan oinarrituta (Eustat, 2020)

	E	G
GM - Nekazaritza	16,0	84,0
GM - Egurra, altzaria eta kortxo	14,4	85,6
GM - Itsas arrantza	5,9	94,1
GS - Segurtasuna eta ingurumena	41,8	58,2
GS - Egurra, altzaria eta kortxo	20,6	79,4
GS - Nekazaritza	17,0	83,0
GS - Energia eta ura	8,1	91,9
GS - Itsas arrantza	2,6	97,4

### 2. Taula. Ingurumenarekin lotutako LHko ikasleak EAEn. 2018-2019 ikasturtea (%)


Iturria: Emakunderen inpaktuaren ebaluazioa Eskola jardueran oinarrituta (Eustat, 2020)

STEAM karreretan dagoen arrakala handi horrek asko baldintzatzen du emakumeek klima aldaketarekin lotutako erabaki espazioetan izango duten presentzia. Klima aldaketaren aurkako politika klimatikoak eta egiturak izateko beharrezkoa da emakumeek energiaren, garraioaren edo beste batzuen artean ingurumenaren sektoreetan lan egin ahal izateko karrera zientifiko eta teknologikoak ikastea. Gainera, kontua ez da bakarrik erabakitze espazio giltzarrietan egotea, baizik eta garapenarekin irekitzen diren laneko esparruetan egotea baita ere, adibidez energia berriztagarrien esparruan, izan ere, aurreikusi baita hurrengo urteetan lan aukera asko egongo direla arlo horretan.

Energia Berriztagarrien Nazioarteko Agentziaren arabera, energia berriztagarrien arloan lan egiten dutenen artean % 32 dira emakumeak. Goi mailako lanpostuetan ehunekoak txikiagoak dira, adibidez, energia eolikoaren sektoreko zuzendaritza lanpostuetan % 8 dira emakumeak.

### 2.3.4 Parte-hartzea eta aktibismoa

Klima aldaketaren arloan partaidetza eta aktibismoa analizatzeko EMAFen (Eustat, 2021) datuak kontsultatu dira emakume eta gizonek ingurumenarekin lotutako jardueretan duten parte-hartzearen inguruan (14. grafikoa). Emaitzak ikusirik ez dago ezberdintasun handirik, eta edonola ere, boluntariotza jardueretan salbu, analizatu diren gainerako jardueretan emakumeen parte-hartzea gizonena baino zertxobait handiagoa da. Baliteke emakumeek horrelako elkarteetan gutxiago parte hartzea, nahiago izaten dutelako gizarte ekintzari lotutako boluntariotzetan parte hartu.



#### 14. grafikoa. Ingurumenarekin lotutako jardueretan parte hartzea (%)

Iturria: Ingurumen inkesta familiei- EMAF (Eustat, 2020)

Bestalde, azpimarratu behar da orokorrean hazi egin dela herritarren parte-hartzea horrelako jardueretan 2008ko eta 2015eko inkesten emaitzekin alderatuta.


Beste batzuen artean, feminismoaren adar gisa sortu den **ekofeminismoak** defendatzen du emakumeek gizonekiko duten subordinazioaren eta inguru naturala ustiatzearen artean lotura dagoela, eta ideia horrek erraztu egin du parte hartzeko eta aktibismoarako espazio berriak sortzea. Horiek, era berean, kontzientziazioa ahalbidetu dute eta mahai gainean jarri dute gizarte jasangarriago, solidarioago eta ekitatiboago baten alde lan egin behar dela.

## 2.4

### Ondorioak


#### KAUSEN INGURUKO ONDORIOAK

- Emakume eta gizonek antzeko joerak dituzte kontsumo ohituretan (energiaren kontsumoa edo berrerabilpena) eta hondakinen kudeaketan. Horrekin lotuta **datuak falta dira**, eta ondorioz, beharrezkoa da adierazleak identifikatzea eta genero ikuspegiarekin azterketak egitea xehetasun gehiagoz ezagutzeko kontsumo ohi-turak. Gainera, kontuan hartu behar da emakumeen errealitatea eta beraien beharrak baita ere, eta gainditu egin behar dira ikuspegi androzentrikoak kontsumo irtenbideak garatzerako orduan.
- **Mugikortasunaren esparruan emakumeek patroik jasangarriagoak dituzte.** Zereginen banaketa ezberdinak eta genero rolek baldintzatu egiten dute espazioen erabilera eta horietan egiten den mugikortasuna. Emakumeek joan-etorri motzagoak egiten dituzte eguneroko zereginak egiteko, eta horietan zaintzeki pisu handia dute. Gizonek lehentasun handiagoa ematen diote norbere ibilgailua erabiltzeari.
- Kontuan hartuta mugikortasunaren eta garraioaren sektorea EAEn berotegi efektuko gas emisioen banaketan pisu handiena duena dela, eta bidaiarien garraioak sektorearen emisio guztien % 60 sortzen duela gutxi gorabehera, baieztatu daiteke **emakumeek gaur egun emisioak gutxitzen dituztela**, izan ere, beraien mugikortasun ereduak oinez edo garraio publikoan joatean oinarrituta daude.
- Apustua egin beharko litzateke **mugikortasun eskaria eta ibilgailu pribatuen erabilera gutxitzeko**, bereziki gizonen artean, eta kontuan hartu beharko lirateke emakumeen behar espezifikoak garraio publikoa maizago erabiltzea errazteko. Zereginen banaketak, eta bereziki zaintzaren arlokoak, mugikortasun ereduak aldatzen eragin dezake baita ere. Horrez gain, hiri eredu trinkoengatik apustuak (horietan bizimodua erradio hurbilean egiten da, genero ikuspegia dute eta herritarrak erdigunean jartzen dituzte) berotegi efektuko gas emisioak gutxitzen lagun dezake.




## EFEKTUEN INGURUKO ONDORIOAK

- Klima aldaketaren efektuekin lotuta emakume eta gizonen artean gertatzen diren ezberdintasunak analizatu direnean, lehenik eta behin ondorioztatu da **beharrezkoa dela adierazle bereiziak izatea** modu objektiboan neurtzeko genero ezberdintasunak besteak beste pobrezia energetikoan edo klima aldaketak osasunean sortzen dituen efektuak.
- Edonola ere, baieztatu daiteke **pobrezia energetikoak emakumeei gizonei baino gehiago eragiten diela**, eta emakumeek energia berriztagarrietan edo energia efizientzian inbertitzeko aukera gutxiago dituztela.
- Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, orokorrean **emakumeak zaugarriagoak dira**. Adibidez, muturreko tenperaturek eragin handiagoa izan dezakete emakumeengan zaintzaile nagusien genero rola dela-eta, izan ere, horregatik denbora gehiago egoten dira etxean. Emakumeen zaugarritasuna hazi egiten da etxebizitzak kalitate gutxikoak direnean eta isolamendu sistema txarrak dituztenean. Eta pobrezia tasa handienak dituztenak izanik, aurreikusi da emakumeentzat ondorioak okerragoak izango direla.
- **Energiaren toki komunitateen aldeko apustua aukera bat da pobrezia energetikoko egoerak arintzeko**. Gainera, badirudi emakumeek arlo horretan dutela interesik handiena, komunitateen eta toki inguruen proiektu ikaragarri deszentralizatuekin alderatuta. Beharrezkoa da emakumeak egotea proiektuak diseinatzen hasten diren fasetik, eta bermatzea emakumeak komunitateen organo erabakitzaileetan daudela, ziurtatzeko partaidetza orekatua dela, eta horrela, emakumeen interes eta behar espezifikoak ikusaraziko dira eta arazoari irtenbideak emateko ikuspegi berriak egongo dira.



## KONTZIENTZIA, LIDERGO ETA PARTAIDETZARI BURUZKO ONDORIOAK

- Orokorrean klima aldaketarekiko **kontzientzia eta kezka maila handia da**, emakumeen artean pixka bat handiagoa gizonen artean baino.
- Jokaerei dagokienez, klima aldaketari aurre egiteko **ohiturak aldatzeko prestutasuna orokorra da**, adibidez, energia kontsumoa murriztea. Hala eta guztiz ere, emakumeek prestutasun handiagoa dute zenbait jokaera aldatzeko, adibidez sasoiko eta hurbileko produktu gehiago erostea, beste batzuen artean.
- **Klima aldaketaren arloko partaidetza eta aktibismoari dagokionez**, emakume zein gizonen **antzeko joerak dituzte** ekintza puntualetan (egoera kaltegarrien aurkako manifestazioetan parte hartzea edo manifestu bat sinatzea). Gizonen prestutasun zertxobait handiagoa dute arazoak salatzeko edo elkarteetan parte hartzeko, eta baliteke horregatik gizon gehiago egotea hausnarketa, kontzientzia eta erabaki espazioetan gizarte erakundeen esparruan.
- Badirudi klima kontzientzia handia hartzen ari direla gazteak orain dela urte batzuetatik aurrera. Bereziki emakume gazte batzuk protagonistak izan dira mundu mailan, eta horri esker gazteek sentitu dute esateko dutena garrantzitsua dela. **Ikuspegi ekofeminista ere lagungarria da emakume gazteek bereziki leku bat aurkitu dezaten** gizarte eta ingurumen justiziarekin lotutako aldarrikapenak egiteko.
- **Ezberdintasun nagusiak erabakiak hartzean gertatzen dira.** Klima aldaketarekin lotura handiena duten arloetako genero arrakala handia da, bai administrazioko zuzendaritza karguetan, bai eta arlo horretan zuzenean parte hartzen duten gobernu maila ezberdinetan ere. Segregazio horizontala emakume eta gizonen okupatzen dituzten arloetan nabaritzen da baita ere. Urte askoan gizonak izan dira zenbait zorrotan gehiago egon direnak, besteak beste energia, nekazaritza, ekonomia kontuak, ogasuna, defentsa, kanpo arazoak eta abar, eta emakumeak aldiz gehiago egon dira beste sail batzuetan, adibidez hezkuntza, gizarte arazoak, osasungintza eta abar.



# 3.

## BERDINTASUNAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN ARLOKO POLITIKA ETA ARAUDI TESTUINGURUAREN ANALISI LABURRA

Genero ikuspegia edozein sektoreko politika eta araudi esparruaren diseinu, ezarpen, ebaluazio eta monitorizazioan sartzea dagoen tresnarik eraginkorrenetakoa da genero berdintasunean aurrera egiteko. Horregatik txosten honetan atal espezifiko bat sartu da kontu hori analizatzeko nazioarteko esparrutik tokiko mailara arte.

**Klima Aldaketaren Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko** (aurrerantzean, CMNUCC) herrialdeek aitortu zuten beharrezkoa dela norabide horretan aurrera egitea, horrela genero ikuspegia kontuan har dadin klima aldaketaren esparru guztietan. Horregatik, alderdien azken konferentzietan (COP), bereziki **Bonn-eko COP 23tik aurrera** (2017), non **Generoaren Ekintza Plana**<sup>18</sup> onetsi zen, geroz eta garrantzia handiagoa ematen zaie klima aldaketa genero desberdintasunarekin eta bere ondorioekin lotzen duten gaiei.

Hala ere, ingurumen politikak genero ikuspegia behar dutenaren egiaztapena zaharra da. 1995ean **Beijingo Emakumeei buruzko Munduko IV. Konferentzia (1995)** inflexio puntua izan zen maila guztietan berdintasun politikak garatzeko, eta bertan generoaren zeharkakotasunaren beharra sartu zuten eta ondorioztatu zuten ingurumena babesteko emakumeek parte hartu behar dutela. **Beijingo Deklarazioa eta Ekintza Plataforma** onetsi zuten, eta horren bidez konpromisoak ezarri ziren emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ezinbestekoak diren 12 ekintza esparrutan, eta horietako bat ingurumenari buruzkoa da.

25 urte geroago, Beijing+25en, **Generation Equality**<sup>19</sup> ekimena sortu zen, mundu mailan Emakumeen NBEk sustatutakoa. Foro horretan mundu mailako ibilbide orria ezarri zen genero berdintasunerako, eta helburua da Beijingo Ekintza Plataformaren promesa betetzea eta Garapen Jasangarrirako Helburuak erdiestea. Lehentasunezko sei ekintza ardatz daude, eta beraien artean dago **Ekintza feminista justizia klimatikorako** (IV. ardatza) izenekoa.

Aurrerapenak egin dira baita ere genero ikuspegia zientzian sartzean. **Klima aldaketaren gobernu arteko taldea** (IPCC) mundu mailan klima aldaketaren arloko zientzia ikerketen ordezkari gorenena da, eta norabide horretan aurrera egiten ari da. 1988an sortu zutenetik IPCCk dokumentazio teknikoa, txosten bereziak eta ebaluazio txostenak idatzi ditu, eta horietan jasotzen da klima aldaketaren inguruko ezagutza zientifiko-teknikoa.

I. taldearen (AR6 Climate Change 2022: The physical science basis<sup>20</sup>) eta II. taldearen (AR6 Climate Change 2022: Impacts, Adaptation and Vulnerability<sup>21</sup>) VI. Ebaluazio txosteneko emaitzak jada aurkeztu dituzte, eta azken horren analisisan ondorioztatu 2014an argitaratu zen AR5ekin lotutako kontu interesgarri batzuk daudela.

Lehenik eta behin, aipatu behar da txosten horretan kapitulu espezifiko bat dagoela eta bertan azaltzen direla generoarekin eta gizarte justiziarekin zerikusia duten eta klima aldaketarekin lotuta dauden gai batzuk. Lehen aldia da IPCCren txosten batean azpimarratzen dela egokitzapen eta arintze aukerak inklusiboak izan behar direla eta ekitate eta klima justiziako alderdiak kontuan hartu behar dituztela.

<sup>18</sup>[www.ipcc.int/resource/docs/2017/sbi/eng/l29.pdf](https://www.ipcc.int/resource/docs/2017/sbi/eng/l29.pdf)  
<sup>19</sup>[www.generationequality.org/sites/default/files/2021-06/UNW%20-%20GAP%20Report%20-%20ES.pdf](https://www.generationequality.org/sites/default/files/2021-06/UNW%20-%20GAP%20Report%20-%20ES.pdf)  
<sup>20</sup>[www.ipcc.ch/report/sixth-assessment-report-working-group-i/](https://www.ipcc.ch/report/sixth-assessment-report-working-group-i/)  
<sup>21</sup>[www.ipcc.ch/report/ar6/wg2/](https://www.ipcc.ch/report/ar6/wg2/)

IPCCn generoa kontuan hartzeko egin diren aurrerapenen beste adibide adierazgarri bat da adituen taldearen eraketa. 721 adituk parte hartu zuten seigarren txostena idazten, eta horietatik % 67 gizonak izan ziren eta % 33 emakumeak. Zifra hori oraindik urrun dago paritarioa izatek, baina aurreko txostenarekin alderatuta (% 79 gizon eta % 21 emakume) positiboa da. II. taldean daude emakume gehien, parte-hartzaile guztien artean % 41 baitira.

Ondoren genero ikuspegia analizatu da erreferentziazko esparru estrategikoan nazioarteko esparrutik (Agenda 2030 edo Parisko Hitzarmena adibidez) toki mailara, Europako, estatuko, autonomia erkidegoko politika eta araudi esparrua aztertuz klima aldaketaren arloan.

## 3.1

### Nazioarteko testuingurua

2015. urtea zedarria izan zen nazioarteko politikak sortzeari dagokionez, klimaren aldeko ekintzarako hainbat akordio garrantzitsu sinatu baitziren, besteak beste Agenda 2030, Parisko Hitzarmena eta Sendairen Esparrua Hondamendien Arriskuak Gutxitzeko. Ondoren aztertu dugu horietako bakoitzean nola sartuta dagoen genero ikuspegia.

#### Erreferentziazko esparru estrategikoak

#### Genero ikuspegia sartzea

##### Agenda 2030<sup>22</sup>

Agenda 2030ek erreferentziazko bi GJH ditu genero berdintasuna lortzeko eta emakume eta neskatok ahalduzko (5. GJH) eta klimaren aldeko ekintza joratzeko (13. GJH).

Gainera, genero ikuspegia zeharkako moduan lantzen da beste GJH batzuetan helburuen bitartez. 13. GJHk helburu jakin bat du, klima aldaketa genero berdintasunarekin lotzen duena, hain zuzen ere 13.b: Mekanismoak sustatzea gutxien aurreratuta dauden eta garatzen ari diren irla-estatu txikietan klima aldaketarekin lotutako plangintza eta kudeaketa eraginkorrerako gaitasuna handitzeko, emakume, gazte eta toki komunitate eta baztertuetan arreta berezia jarritz.

Beste GJH batzuek zuzenean eragiten dute klima aldaketan eta horien helburuetan ere genero berdintasuna eta emakumeen ahalduzkoa daude, besteak beste hauek: 2. GJH Goserik ez izatea, 6. GJH Ur garbia eta saneamendua, 7. GJH Energia eskuragarria eta ez kutsatzailea, 11. GJH Hiri eta komunitate jasangarriak eta 14. GJH Uretako biziak.

Bestalde, Nazio Batuek beste adierazle batzuk proposatu zituzten genero ikuspegia duten helburuak jarraitzeko, baina azterlan batzuek, adibidez Emakumeen NBEk<sup>23</sup> 2018an egindakoak, diote sexuaren araber bereizitako informazioa eta adierazle espezifikoak falta direla.

<sup>22</sup><https://sdgs.un.org/es/goals>

<sup>23</sup><https://www.unwomen.org/sites/default/files/Headquarters/Attachments/Sections/Library/Publications/2018/SDG-report-Gender-equality-in-the-2030-Agenda-for-Sustainable-Development-2018-es.pdf>

**Erreferentziako esparru estrategikoak****Genero ikuspegia sartzea****Parisko Hitzarmena<sup>24</sup>**

Hitzarmenaren hitzaurrean hauxe dago jasota:

*“Alderdiek hitzarmen honetan [...] aitortuz baita ere klima aldaketa gizateria guztiaren arazoa dela, eta klima aldaketari aurre egiteko neurriak ezartzean, alderdiek honakoekin lotuta dituzten betebeharrak errespetatu, sustatu eta kontuan hartu beharko lituzketela: giza eskubideak, osasunerako eskubidea, herri indigenen eskubideak, tokiko komunitateak, migratzaileak, umeak, desgaitasuna duten pertsonak eta egoera zaugarrietan daudenak, garapenerako eskubidea, genero berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta belaunaldien arteko ekitatea [...]”.*

Gainera, Hitzarmenak jasotzen du beharrezkoa dela genero ikuspegia ezartzea egokitzapenerako (7. artikulua, 5. apartatua) eta gaitasunak sustatzeko (11. artikulua, 2. apartatua).

Hitzarmenaren gainerako puntuetan, nagusiki arintzearekin lotuta daudenetan, ez da aipatzen genero konturik.

**Sendai Esparrua Hondamendien Arriskuak Gutxitzeko (2015-2030)<sup>25</sup>**

Genero ikuspegia esparruaren printzipio zuzentzailetan agertzen da, zehazki 19 d) apartatuan: *Hondamendien arriskua gutxitzeko gizarte guztiak parte hartu eta lagundu behar du. (...) Genero, adin, desgaitasun eta kultura ikuspegiak sartu beharko lirateke politika eta praktika guztietan eta emakume eta gazteen lidergoa sustatu beharko lituzteke. (...).*

Gainera, Sendai esparruak jarduteko lehentasunezko 4 lerro ezartzen ditu. 4. lehentasunaren barnean: *Hondamendi kasuetarako prestatuntza handitzea, erantzun eraginkorra emateko eta “hobeto berreraikitze” berreskuratze, birgaitze eta berreraikitze esparruetan. Horrez gain, genero ikuspegia kontuan hartzearen beharra aipatzen da puntu honetan:*

*b) Alerta goiztiarreko sistemak eta askotariko mehatxuak aurreikusteko sistemak garatu, mantendu eta indartzea, betiere sektore anitzekoak badira eta herritarrengan, larrialdien eta hondamendi arriskuen komunikazio mekanismoetan, gizarte teknologietan eta telekomunikazio sistemetan oinarrituta badaude mehatxuak ikuskatzeko eta horietan inbertitzea; sistema horiek prozesu parte-hartzaileen bidez garatzea eta erabiltzaileen beharretara egokitzea, kontuan hartuta gizarte eta kultura berezitasunak, bereziki generoari dagozkionak.*

Azkenik, esparruaren V. Beharrezko eragileen zeregina apartatuan azpimarratzen da *emakumeen partaidetza ezinbestekoa dela modu eraginkorrean kudeatzeko hondamendi arriskua eta genero ikuspegiarekin diseinatu, baliabideak eman eta praktikan jartzeko politika, plan eta hondamendien arriskuak gutxitzeko programak; beharrezkoa da gaitasuna sortzeko neurriak ezartzea, emakumeak ahaldundu daitezten hondamendi horien aurrean prestatzeko eta gaitasuna gara dezaten bizitzako bitarteko alternatiboak ziurtatzeko hondamendi ondorengo egoeretan.*

<sup>24</sup><https://unfccc.int/es/process-and-meetings/the-paris-agreement/el-acuerdo-de-paris>

<sup>25</sup>[http://www.unisdr.org/files/43291\\_spanishsendaiframeworkfordisasterri.pdf](http://www.unisdr.org/files/43291_spanishsendaiframeworkfordisasterri.pdf)

Esparru orokor hori erreferentziatzen hartuz, **Europa mailan** aztertu da nola klima aldaketarekin lotuta dauden plan, estrategia eta araudi nagusiak genero ikuspegia kontuan hartzen dauden.

### Planak, estrategiak eta araudia

### Genero ikuspegia sartzea

#### Europako Itun Berdea<sup>26</sup>

2019an argitaratu zuten hitzarmenaren onespenez testuan ez zen genero berdintasuna aipatzen.

Europako Parlamentuak, kontu horrekin lotuta, 2020an 2019/2956 (RSP) Ebazpena onetsi zuen Europako Hitzarmen Berdearen<sup>27</sup> inguruan, eta bertan azpimarratzen da beharrezkoa dela genero ikuspegia aplikatzea hitzarmen berdeko ekintza eta helburuetan, genero ikuspegia sartzea eta genero ikuspegia duten ekintzak barne, eta batzordeari eskatzen dio Ekintza plan zehatz bat diseina dezala generoaren arloko ekintza plan berriaren konpromisoak betetzeko, bost urtekoa, COP25en erabaki zena (Limako plan programa hobetua), eta CMNUC-Cren prozesuan genero berdintasuna sustatzen duena eta batasunaren erreferentzia puntu iraunkor bat izendatu dezala genero eta klima aldaketaren alorretan, nahikoa aurrekontu baliabide dituen, horrela batasunean eta mundu osoan generoaren arloan klima arduratsuen aldeko ekintza aplikatu eta berrikusteko.

Ilido berari jarraikiz, 2022ko urtarrilaren 27an Europako Eskualdeen Batzordeak ebazpena eman zuen *Genero berdintasuna eta klima aldaketa: genero ikuspegia sartzea Europako Hitzarmen Berdean* gaiaren inguruan, eta Europako Parlamentuaren ebazpenari buruzko zenbait gomendio politiko eman zituen kontu horretan aurrera egiteko eta gai zehatzak aipatu zituen, adibidez, garraio publikoa eta mugikortasun jaingarria eta pobrezia energetikoa.

#### Klima aldaketara egokitzeko Europako estrategia<sup>28</sup>

Estrategiaren apartatu honetan hauxe aitortzen da: 2.2.2 Tokiko erresiliencia sustatzea, indibiduala eta bidezkoa, klima aldaketaren inpaktuak ez direlako neutroak. Emakume eta gizonek, adinekoek, desgaitasuna dutenek, desplazatuek edo gizartearen baztertuta daudenek egokitzeko gaitasun ezberdinak dituzte. Egokitzapen neurriek kontuan hartu behar dute beraien egoera.

Ez dugu erreferentzia gehiagorik aurkitu.

#### Europaren Klima Legea<sup>29</sup>

Generoa aipatzen da legearen elementu hauetan:

##### 9. art. Partaidetza publikoa

*Batzordeak tresna egoki guztiak erabiliko ditu, Klimaren aldeko Europako hitzarmena barne, herritarrak, gizarte solaskideak eta alderdi interesdunak inplikatzeko, eta elkarrizketa eta datu zientifikoetan oinarritutako informazio hedapena sustatuko ditu klima aldaketari eta bere alderdi sozialei eta genero berdintasunari buruz.*

##### 12. art. 401/2009 (CE) erregelamendua aldatzea (Klima Aldaketari buruzko Europako Aholkularitza Kontseilu Zientifikoekin lotuta)

*3. Administrazio kontseiluak izendatuko ditu Aholkularitza Kontseiluko kideak lau urteko eperako. Epe hori behin luzatu ahalko da hautaketa prozesu ireki, ekitatibo eta garden baten bidez. Aholkularitza Kontseiluko kideak aukeratzean administrazio kontseilua saiatuko da ezagutza tekniko, disziplinario eta sektorialak anitzak direla bermatzen eta genero oreka eta oreka geografikoa ziurtatzen saiatuko da baita ere.*

<sup>26</sup>[https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal\\_es](https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es)

<sup>27</sup>[https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2020-0005\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2020-0005_ES.html)

<sup>28</sup><https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:52021DC0082&from=EN>

<sup>29</sup><https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32021R1119&from=EN>

## 3.2

### Estatuko planak eta araudia

Estatu mailan klima aldaketaren arloan indarrean dagoen plangintza esparrua analizatu da eta arintze eta egokitzapen arloetan gauzatu beharreko ekintzak eta helburuak eta klimaren aldeko ekintza arautzen duen indarreko legeria jasotzen ditu.

Planak, estrategiak eta araudia	Genero ikuspegia sartzea
<b>Energia eta klimaren plan nazional integratua PNIECC 2021-2030</b> <sup>30</sup>	Agiriaren sarreran, zehazki plana sortzeko prozesua azaltzen den atalean, aipatzen da <i>Plana irmoki konprometituta dagoela genero ikuspegiarekin</i> . Ez dugu erreferentzia gehiagorik aurkitu.
<b>Klima aldaketara egokitzeko plan nazionala PNACC 2021-2030</b> <sup>31</sup>	PNACC-1 (2006-2020) agiriaren berrikuspen esparruan eta PNACC 2021-2030 sortu aurretik, "sortzen ari ziren gai batzuk" identifikatu ziren eta arreta jarri behar zitzairen. Horien artean zegoen genero ikuspegia sartzea edo bizi estiloen papera klimaren aldaketaren aurrean erresilientzia sortzeko. Hausnarketa horretatik abiatuta, plan berriak genero ikuspegia modu honetan sartzen du: -Genero ikuspegia zeharkako elementua da -Planaren jarraipena egiteko adierazle multzoan genero ikuspegia sartzea aipatzen da. -T4. Genero ikuspegia sartzea izeneko ekintza lerroa txertatu zen, eta horren barnean gai hauek daude: · Klima aldaketarekiko esposizioaren, zaurgarritasunaren eta inpaktuen datuak jasoko dira sexuen arabera bereizita eta adierazle espezifikokoak garatuko dira genero arrazoiengatik desberdintasunak ulertzeko. · Genero ezberdintasunak kontuan hartuko dira informazio eta presakuntza jasotzeari, arriskuaren pertzepzioari, ingurumen jokaerari eta bizi estiloari dagokienez. · Emakumeak aldaketaren agente aktiboak izango dira eta erraztu egingo da emakumeek lidergo postuak izatea, beren erresilientzia eta erabaki trebetasunak erakustea, eta partaidetza osoa, berdintasunezkoa eta esanguratsua izatea egokitzapenaren inguruan erabakiak hartzeko foro nagusietan.
<b>2050eko epe luzerako deskarbonizazio estrategia</b> <sup>32</sup>	Genero kontuak zeharkako elementu gisa jasota daude klima neutraltasunean, baina ez da gehiagorik zehazten.
<b>Klima aldaketa eta energia trantsizioa legea</b> <sup>33</sup>	Generoa aipatzen da legearen elementu hauetan: <b>2. art. Printzipio arautzaileak</b> <i>i) Emakume eta gizonen arteko berdintasuna.</i> <b>37. art. Klima aldaketa eta energia trantsizioa adituen batzordea</b> <i>Klima aldaketa eta energia trantsizioa adituen batzordeak bere jardura gauzatuko du estatuko administrazio orokorrarekiko autonomia osoarekin eta eraketa paritarioa izango da emakume eta gizonetan.</i> <b>39. art. Partaidetza publikoa</b> <i>...Klima aldaketaren herritarren batzarra sortuko da nazio mailan eta gomendatuko da autonomia erkidego eta udaletan batzarrak sortzea. Taldeen eraketan kontuan hartuko da emakume eta gizonen arteko ordezkartza orekatua eta gazteek ere parte hartuko dute.</i>

<sup>30</sup>[https://www.miteco.gob.es/images/es/pnieccompleto\\_tcm30-508410.pdf](https://www.miteco.gob.es/images/es/pnieccompleto_tcm30-508410.pdf)

<sup>31</sup>[https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/impactos-vulnerabilidad-y-adaptacion/pnacc-2021-2030\\_tcm30-512163.pdf](https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/impactos-vulnerabilidad-y-adaptacion/pnacc-2021-2030_tcm30-512163.pdf)

<sup>32</sup>[https://www.miteco.gob.es/es/prensa/documentoelp\\_tcm30-516109.pdf](https://www.miteco.gob.es/es/prensa/documentoelp_tcm30-516109.pdf)

<sup>33</sup><https://www.boe.es/eli/es/l/2021/05/20/7/con>

### 3.3

## Euskadiko autonomia erkidegoko eta tokiko testuingurua

Euskadiko autonomia erkidegoko eta tokiko testuinguruaren analisiak autonomia erkidegoko estrategia eta planetan, izapidetzen eta indarrean dagoen araudi esparruan eta klimaren aldeko ekintza jorratzen duten toki plangintzan laguntzen duten baliabideetan jarri du fokua.

Planak, estrategiak eta araudia	Genero ikuspegia sartzea
<b>2021-2024ko Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Plana</b>	Genero ikuspegia kontuan hartzea ekitate eta gizarte justiziaren terminoetan planaren oinarri den printzipioetako batean jasota dago: -Gizarte kohesioa: klima aldaketaren arloko ekintza, pertsona guztientzako justizia baldintzak bermatuko dituen benetako ekitatearen sustatzaile gisa. Ez dugu erreferentzia gehiagorik aurkitu.
<b>Euskadiren 2030erako estrategia energetikoa<sup>34</sup></b>	Ez da aipatzen generoa.
<b>2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko Estrategia<sup>35</sup></b>	V. eranskinean, sektoreka egokitzeko beharrak zehazten dira, eta honako hau aipatzen da: <b>Azpiegitura linealen sektorea</b> <i>Mugikortasun ereduan izan daitekeen aldaketaren azterketa, garraio publikoa gehiago barneratuz, eta beste mugikortasun modu jasangarri batzuk (bizikleta eta oinezko joan-etorriak), gaur egun emakumeek gizonen baino gehiago erabiltzen dituztenak.</i> <b>Osasunaren sektorea</b> <i>Bereziki beharrezkotzat jotzen da gizarte taldeen kalteberatasunean eta gizonen eta emakumeen artean dauden alde espezifikoak buruzko azterlanetan aurrera egitea, bai desberdintasun biologikoengatik, bai genero desberdintasunengatik.</i>
<b>4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa<sup>36</sup></b>	Generoa aipatzen da legearen elementu hauetan: <b>Printzipioetan</b> <i>f) Unean-unean eskura dauden datu zientifiko eta teknikoetan oinarritutako energia politikak, jasangarritasun energetikoarekin zerikusia duten neurri eta jarduketak diseinatzerakoan genero ikuspegi eginak.</i> <i>h) ...Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egon dadin saiatu behar da; kontuan hartu behar da ez dutela parte hartzeko modu bera batzuek eta besteek, eta, horrenbestez, konpentsazio estrategiak aurreikusi beharko direla.</i> <b>9. art. Jasangarritasun energetikoaren batzordeak</b> <i>...betiere emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.</i> <b>24. art. Mugikortasun planak</b> <i>Plana eta plana egiteko beharrezkoak diren azterketak gizonen eta emakumeen hiriri eta espazioari ematen dieten erabilera desberdinak kontuan hartuta idatzi behar dira, eta generoen artean egon daitezkeen aldeak gutxitzeko proposamenak jaso behar dira, hiri integritateak eta erantzunkidea lor dadin aurrera egiteko.</i>

<sup>34</sup><https://www.eve.eus/EveWeb/media/EVE/pdf/3E2030/EVE-3E2030-castellano.pdf>

<sup>35</sup><https://www.ihobe.eus/publicaciones/estrategia-cambio-climatico-pais-vasco-klima2050>

<sup>36</sup><https://www.boe.es/buscar/pdf/2019/BOE-A-2019-3705-consolidado.pdf>

**Planak, estrategiak eta araudia****Genero ikuspegia sartzea****Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren legearen aurreproiektua**

Lege hori izapidetzen ari ziren txosten hau idatzi zen unean, eta horregatik, ezin izan zen analizatu gainerako araudiarekin egin den bezala. Hala eta guztiz ere, ikusirik txosten honen helburuarekin lotuta dagoela, egokitzen jo da analisiaren barnean sartzea eta *Energia trantsizioaren eta klima aldaketaren legearen aurreproiektuari*<sup>37</sup> buruzko txostena aipatzea, Emakundek idatzi zuena.

Txosten horretan zenbait hausnarketa eta hobekuntza proposamen egiten dira lege aurreproiektuari dagokionez eta azpimarratzen da beharrezkoa dela emakume eta gizonen egoerari buruzko informazioa modu berezian jasotzea, horrela arauaren genero inpaktua ebaluatu ahal izateko.

Bestalde, lege aurreproiektuaren kontsulta publikoko prozesuan parte hartu zuten 46 emakumek eta 41 gizonek.

**EAEko lurralde antolamenduko gidalerroak (aurrerantzean, LAG)**

LAGak berrikustean idatzi zuten *Genero ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduko gidalerroetan. Ekintza proposamenak*<sup>38</sup> izeneko txostena, eta informazio hauxe du:

- 4.1 Genero ikuspegia izeneko apartatua berrikusi eta idazketa luzeago berria proposatzea, lurralde antolamenduko gidalerroetako jarduketako zeharkako esparru gisa.
- Zeharkako neurrien proposamena Euskal Autonomia Erkidegoan genero ikuspegia instituzionalizatzeko.
- Lehentasunezko eremu tematikoak identifikatzea genero arloko ekintza eta neurriak sartzeko, LAGetan sartutako 8 eremuen artean.
- Ekintza neurriak/lerroak proposatzea identifikatutako ekintzako lehentasunezko eremu bakoitzarentzat.
- Proposatutako ekintza espezifikoaren deskribapen fitxak.

**Klima eta energiaren toki eta eskualde planak**

**Klima eta energiaren toki eta eskualde planak** udalerrri eta eskualdeen plangintza tresnak dira eta 2021ean lhobek EEerekin batera garatutako metodologiarekin egiten dira eta Euskadiko klima eta energiaren tokiko planak<sup>39</sup> egiteko gidan jasota daude.

Gauzak horrela, txosten hau idatzi genuenean, ez zegoen onetsitako klima eta energia planen lagin adierazgarririk. Horregatik egokitzen jo da aztertzea zein modutan kontuan hartzen dituen genero kontuak gida metodologikoak.

Aurkitu genuen aipamen bakarria egokitzen eremuko ekintzen ezagarritze eremuekin lotuta dago, "biztanleria helburuaren taldeak" atalaren barnean.

Azkenik, aipatu behar da 2022an azkenengoz aldatu zela Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, eta hauxe ezartzen du: "euskal botere publikoek ingurumenean dituzten eskumenen esparruan, beste neurri batzuen artean (...) genero ikuspegia aplikatuko dute klima aldaketaren arintze eta egokitzen estrategiak ikertzen, analizatzen, diseinatzen eta martxan jartzen dituztenean eta erabaki politiko eta teknikoak hartzen dituztenean, eta fenomeno horren askotariko inpaktuak bistaratuko dituzte (46.2.d. art.).

<sup>37</sup>[https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision\\_dot/es\\_def/adjuntos/Perspectiva%20de%20G%3%a9ne-ro%20en%20las%20DOT%20\(1SdM\).pdf](https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision_dot/es_def/adjuntos/Perspectiva%20de%20G%3%a9ne-ro%20en%20las%20DOT%20(1SdM).pdf)

<sup>38</sup><http://www.udalsarea21.net/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=892e375d-03bd-44a5-a281-f37a7cbf95dc&Cod=b06dfb30-9062-4941-81fe-83c193190ba8&Idioma=es-ES&Tipo=>

<sup>39</sup><http://www.udalsarea21.net/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=892e375d-03bd-44a5-a281-f37a7cbf95dc&Cod=b06dfb30-9062-4941-81fe-83c193190ba8&Idioma=es-ES&Tipo=>

## 3.4

### Ondorioak

- Aurrerapen gehiago egin dira genero ikuspegia aplikatzeko klima aldaketara egokitzeko plan, estrategia eta araudian arintzearekin eta zuzenean energiarekin zerikusia duten kontuekin alderatuta.
- Araudi mailan, ohikoa da berdintasunaren inguruko erreferentziak aurkitzea legeen hitzaurretan eta printzipio zuzentzaileetan, baina artikuluetan desagertu egiten dira eta orokorrean aipatzen diren gaiak dira emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua bermatu beharra batzordetan eta partaidetza eta kontsulta prozesuetan.
- Kasu gehienetan aurkitutako erreferentziak bat datoz Berdintasun Legearen oinarri-zko printzipioekin, eta ez dituzte bestelako berritzaileagoak sartu, adibidez interseksionalitatea edo emakumeen ahalduntzea.
- Horrez gain, Berdintasun Legeak markatutako betebeharretatik haratago joan nahi duten intereseko gaiak identifikatu dira baita ere, nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduko gidalerroetan.

Bukatzeko, eta laburpen moduan, egokitzen jo dugu analizatutako planak, estrategiak eta araudia sailkatzea orain arte deskribatu dugun informazioa interpretatzea errazten duten eta hurrengo taulan zehazten diren irizpideetan oinarrituta.

Hainbat plan, estrategia eta arauditan genero ikuspegiaren integrazio maila baloratzeko erabili diren irizpideak	PUNTUAZIOA
Ez da aipatzen generoa.	0
Generoaren ikuspegia kontuan hartzearen garrantzia aipatzen da, baina ez da sartzen.	1
Genero berdintasuna sartuta dago helburu estrategikoen mailan, baina ez programa operatiboan edo ekintzen mailan (plan eta estrategien kasuan) ezta xedapen orokorren mailan, eta ez dago artikulua espezifikorik genero ikuspegiaren integrazioa sustatzen duenik (legeen kasuan)	2
Genero berdintasuna maila guztietan kontuan hartzen da, helburu estrategikoetan, ekintzetan (plan eta estrategien kasuan), xedapen orokorretan eta gainerako artikuluetan (legeen kasuan).	3
Genero berdintasuna maila guztietan kontuan hartzen da, jarraipenean barne, eta sexuaren arabera bereizitako adierazleak daude (plan eta estrategien kasuan) eta artikulua espezifikoa da genero berdintasuna sustatzen duten ekintza zehatzak egite aldera (legeen kasuan)	4

Deskribatutako irizpideetan oinarrituta analizatu diren askotariko plan, estrategia eta araudietan genero ikuspegiaren integrazioaren mailaren analisiaren emaitza hurrengo taulan aurkeztu da:

Analizatutako planak, strategiak eta araudia	PUNTUAZIOA
Europako Itun Berdea	0
Klima aldaketara egokitzeko Europako estrategia	1
Europako Klima Legea	2
PNIECC 2021-2030	1
PNACC 2021-2030	4
2050eko epe luzerako deskarbonizazio estrategia	1
Klima aldaketa eta energia trantsizioa legea	3
2021-2024ko Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Plana	0
Euskadiren 2030erako estrategia energetikoa	0
Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren legea <sup>40</sup>	-
4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa	3
Lurralde Antolamendurako Gidalerroak	4
Klima eta energiaren toki eta eskualde planak (gida metodologikoa)	1

<sup>40</sup>Esta Ley no ha sido puntuada dado que, en el momento de redacción del Informe todavía no está aprobada

## 4.

### ERRONKA ETA EKINTZA GILTZARRIAK GENERO IKUSPEGIA EUSKADIKO KLIMA EKINTZAN SARTZEN DELA BERMATZEKO

Aurrera egin eta genero ikuspegia Euskadiko klima aldaketarekin eta energia trantsizioarekin lotutako kudeaketa eta jarduketetan sartzen joateko, atal honetan egindako analisis oinarrituta identifikatu diren erronkak eta integrazio hori ziurtatzen duten ekintzak aurkeztu dira. Aipatu behar da hemen proposatu diren erronka eta ekintzak arloan giltzarriak diren agenteekin egindako partaidetza prozesu batetik sortu zirela.

**18 ekintza dituzten 4 erronka** identifikatu dira, eta diagnosian azpimarratutako beharrei erantzuten diete (ikus 2.4 atala). Erronkek, alde batetik generoaren eta ekofeminismoaren ikuspegia ezagutaraztea barne hartzen dute, horrela **ekofeminismoak** egindako lanari eta jada sortuta dauden espazioei balioa emateko. Beste alde batetik, diagnosian egin den bezala, genero ikuspegiaren integrazioa barne hartzen dute klima aldaketa arintzearen eta aldaketara egokitzearen ikuspegitik. Azkenik, beharrezkoa da administrazioak zeharkako moduan ezartzea klimaren eta generoaren ikuspegia.

Erronka bakoitzerako identifikatutako ekintza giltzarriak aurkeztu dira eta diagnosia egituratzeko balio izan duten arlo bakoitzarekin lotu dira, hau da



KAUSAK



EFEKTUAK



LIDERGOA ETA PARTAIDETZA

Horrez gain, Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotu dira (horiei erantzuten die).

## 1. ERRONKA

### GENERO IKUSPEGIA ETA IKUSPEGI EKOFEMINISTA SARTZEA KLIMA ALDAKETAREN ETA ENERGIA TRANTSIZIOAREN HAUSNARKETA ETA ERABAKI ESPAZIOETAN

Lehenengo erronkak genero ikuspegia klima aldaketaren eta energia trantsizioaren hausnarketa eta kudeaketa espazioetan sartzearen beharrari erantzuten dio. 2.3 atalean analizatu den bezala, nahiz eta klima aldaketarekiko kezka eta ohiturak aldatzeko prestutasuna antzekoa den gizon eta emakumeen artean, genero arrakala argia dago Euskadin klima aldaketa eta energia trantsizioarekin gehien lotuta dauden arloetan erabakiak hartzerako orduan. Gainera, erronka horrek, bere ekintzen bidez, ekofeministotik egiten ari den lana ikusaraztea ere bilatzen du, bai eta gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa sustatzea eta berdintasunezko maskulinitateak eta ingurumenarekiko errespetuzkoak sustatzea ere, gizonek orokorrean azterna ekologiko handiagoa eta kontzientzia eta kezka maila baxuagoa baitute emakumeek baino.

#### ERRONKA HONETARAKO EKINTZA GILTZARRIAK




1.1. Ekofeminismoa klima eta energiaren arloetan egiten ari den lanari balioa ematea.



1.2. Genero ikuspegia herritarrak klima eta energiaren arloan ahalduntzeko ekintzetan sartzea sustatzea.



1.3. Emakumeek jada parte hartzen duten espazioetan klima eta energiari buruz hausnartzea sustatzea.



1.4. Klima eta energiarekin lotutako askotariko alor eta sektoreetako erabaki organoetan emakumeen presentzia bultzatzea.



1.5. Klima ekintzarekin lotutako presuntzia eta lan eremuetan emakumeen presentzia sustatzea.



1.6. Sentsibilizazio ekintzak garatzea, gizonak kontzientziatzeko eta inplikatzeko, eta berdintasunezko maskulinitateak eta ingurumenarekiko errespetuzkoak sustatzeko, genero ikuspegitik.



## 2.ERRONKA

### GIZARTE ETA EKONOMIA EREDUA ERALDATZEA BIZITZAREN JASANGARRITASUNA SUSTATUZ KLIMA ALDAKETA ARINTZEAREKIN LOTUTA

Bigarren erronkak gizarte eta ekonomia eredu jasangarriagoen alde egitearen beharri erantzuten dio, zeintzuek herritarrek erdigunean jartzen dituzten interes ekonomikoen aurretik. 2.1 atalean deskribatutako analisiari jarraituz, bai ikuspegi indibidual zein sozialek, kontsumo ohiturak (adibidez mugikortasuna edo energia) erabakigarriak dira klima aldaketa arintzeko. Horrekin lotuta, emakume eta gizonek patroi oso ezberdinak dituzte zenbait ohituretan. Erronka honen xedea da gizarte eta ekonomia eredu berriari buruz hausnartzea eta ohitura jasangarriak sustatzea.

#### ERRONKA HONETARAKO EKINTZA GILTZARRIAK

- |   |  |  |
|---|--|--|
| ↳ | 2.1. Ertabaida publikoa sustatzea egungo ekoizpen eta kontsumo ereduari buruz ikuspegi ekofeministarekin..   |     |
| ↳ | 2.2. Gastu publikoa berrantolatzea genero ikuspegitik, eta modu horretan eragina izatea klima aldaketa arintzeko esfortzuetan eta energia trantsizioan, eta herritarren egoera errealak kontuan hartzea. |      |
| ↳ | 2.3. Genero ikuspegiarekin analizatzea herritarrek babesten dituzten eredu energetikoak, horrela energia trantsizio bidezkoa bermatzeko.   |     |
| ↳ | 2.4. Herritarrek sentsibilizatzea klima aldaketaren inpaktuen eta egungo bizi ereduaren loturaren inguruan.  |       |

### 3.ERRONKA

## KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEAK GENERO-IKUSPEGIA INTEGRA DEZAN SUSTATZEA, ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONA GUZTIENGANA IRITS DADIN

Hirugarren erronkak genero ikuspegia klima aldaketara egokitzeko neurrietan sartzeko beharrari erantzutea bilatzen du. 2.2 atalari jarraikiz, klima aldaketaren inpaktuak handitzen ari dira eta aurreikusi da geroz eta larriagoak izango direla herritar eta kolektiboen zaurgarritasun egoerak pobrezia energetikoari edo osasunari dagokienez besteak beste. Horrekin lotuta, erronkak bere ekintzen bidez lortu nahi du bermatzea inor ez dela atzean geratzen (sexua, jatorria, adina, diru-sarrerak...) klima larrialdiaren kudeaketan, eta inpaktu kateak analizatzen direla landa eta hiri inguruetan eta askotariko jarduera ekonomikoetan.

#### ERRONKA HONETARAKO EKINTZA GILTZARRIAK



3.1. Genero ikuspegia sartzea klima arriskuaren analisietan.



3.2. Egokitzapen neurriak genero ikuspegiarekin diseinatu eta ebaluatzea.



3.3. Emakumeek nekazaritza jarduerak klima aldaketara egokitzeko duten ikuspegia eta ezagutzak sartzea.



3.4. Herritarrak sentsibilizatzea etorkizuneko klima egoeretara egokitzeko beharraren inguruan, eta inor atzean ez uztearen printzipioa betetzea horretarako.



## 4. ERRONKA

### ADMINISTRAZIOAN ZEHARKAKOTASUNAREN ALDE EGITEA GENERO IKUSPEGIA ETA KLIMA ETA ENERGIA TRANSIZIOAREN IKUSPEGIA EZARTZEKO

Laugarren eta azken erronkaren xedea da azpimarratzea beharrezkoa dela klima, energia trantsizioa, generoa eta horien arteko konbinazioa administrazioan zeharkako moduan aplikatzea, gizarte eta ekonomia arlo gehienetan garrantzitsuak direlako eta eraginak sortzen dituztelako. Horretaz gain, 2.4 atalean jasotako ondorioei jarraikiz, klima aldaketan eta energia trantsizioan genero ikuspegia sartzeko eta horiek era berean zeharkakoak izateko abiapuntu argi bat landu eta izateko beharrezkoa da ikuspegi intersektionala duten datu eta azterlanak izatea eta horiek sexuen eta bestelako faktore erabakigarrien arabera datuok bereiztea.

#### ERRONKA HONETARAKO EKINTZA GILTZARRIAK




4.1. Klima eta berdintasun politikekin lotuta dauden sail eta arloen arteko harremana erraztea.



4.2. Informazioa, prestakuntza eta tresnak erraztea klima eta energia trantsizioko eta berdintasuneko arduradunek ikuspegi bikoitza ziurtatu dezaten.



4.3. Identifikatzea klima eta energia-ekin lotutako zein informazio sistema ez dauden gaur egun sexuaren arabera berezita, eta horiek berrikus-tea proposatzea.



4.4. Klima eta energiaren politika publikoak genero ikuspegitik sortzen ari diren inpaktua analizatzea.



